

TOKIKOM

2011ko ekaina | 105. zenbakia

ailkor!

txorierriak

José Félix Guerrero, enpresaria

Sena gerraria

Erdu eta gozatu

LOIUKO



UDALA

Jaietan
euskaraz blai!

Larrondoko Ikastetxea
ESPERANZA ALHAMA
Lanbide Heziketa



Ate irekien jardunaldiak: maiatz eta ekainaren astearteetan (17:00-19:00)

Aurrez izena ematea: ekainaren 1etik 10era

Matrikulak: uztailaren 4tik 12ra

Heziketa zikloak: erdi mailakoa eta goi mailakoa
Erdi mailakoa

-Ekipo eta instalazio elektronikoak (2.000 ordu)

-Administrazio kudeaketa (1.300 ordu)

-Merkataritza (1.400 ordu)

Goi mailakoa

-Administrazioa eta finantzak (2.000 ordu)

-Sistema informatikoen administrazioa (2.000 ordu)

-Nazioarteko merkataritza (2.000 ordu)

LHIK (Lanbide Hastapenerako Ikastegia)

-Behe tentsioko instalazio elektroteknikoetarako langilea

-Elektromekanikoa

-Merkataritzako laguntzailea

-Bulegoko laguntzailea

INEMeko ikastaroak**Lanerako prestakuntzako ikastaroak**

-Eusko Jaurlaritzak babestutako zentroa

Hobetuz

Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: ealhama1@sarenet.es - Informazioa: 94 471 01 51

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Horma-Armairuetan eta Erreformatan Especialistak

Alain Pomposo Zarate

946 740 141

663 209 209

www.altzari.com

altzari@altzari.com

Luisine, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

elekma
URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK

Lehenengo markak • Prestakari onenak

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasarien ordez, 25-3 N • 48180 Lodu

T: 944 539 232

www.elekma.es



TURREGOITI
JATETXEA

Laurae eta etorbidea, 27

48180 Lodu-Bizkaia

T-Faxa: 94 453 24 40

restauranteturregoit.com



Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES



902 54 08 54 www.arlan.biz



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jon Ander Rola, Erika Pereda, Edurne Dalmau, Oihane Ziordia, Argazki Press, Jon Goikouria Larrabeiti, Loiuko Udala, Aldekoneko jai-batzordea, Lurdes Etxebarria, Sabin Arana, Xabier Díaz, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Bidera

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Esne beltza taldea



22 Loiuko jaiak



30 Irrifarrak sortuz, mugarik ez

- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Hormako bisitaria
- 12 Gurean izan da... Esne beltza taldea
- 14 Gaztea eta... Igor García, zine ikaslea
- 16 Loiuko jaiak
- 18 José Félix Guerrero
- 22 Aldekoneko jaiak
- 24 Jan ezinik
- 26 Baserri Antzokia
- 27 Literaturia
- 28 Mariano Ruiz, Zamudioko entrenatzaile ohia
- 30 Elkarteak... Irrifarrak sortuz, mugarik ez
- 32 Txorierri ezagutu... San Bartolome
- 34 Teknologia...
- 35 Aikorrizketan... Berbálaguna: 30 ardi edo 3.000?
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda



JON ANDER ROLA
(Irakaslea)

Kaixo, Arene: idatzi hau egitea erabaki nuenean, zure izenarekin hasi nintzen jolasean, Mikel Zaratek *Ekidazu* ipuinarekin egin zuen bezala, eta izen hori atera zitzaidan. Oso aproposa iruditu zitzaidan izenburu moduan, batez ere zure aitari hegaz joan zarela entzun nioenean, eta eskolan "txoritxu" deitzen zizutela jakin nuenean. Orain dela hilabete batzuk zure aitari entzun nion, Gure señeak elkartearen aurkezpenean, eskerrak ematen zizkizula, gizakiagoa izaten lagundu diozulako. Eta entzuten ari nintzen une horretan pen-

tsatu nuen geuk ere hainbat gauzarengatik eskerrak eman behar genizkizula.

Eskerrik asko, aurpegian marraztuta zenuen etengabeko irribarre horrengatik, zuregana hurbiltzea mingarria izan beharrean gozo eta erraz egiten zigun irribarre horrengatik.

Eskerrik asko, zure txikitasunean gai izan zarelako gure eskualdean, Gure señeak elkartearen bidez, tsunami bat lortzeko, esparru guztietako jendea zuengana hurbilduz. Eta ez bakarrik diru-laguntzak emanez, beste era askotan baizik: zuen egoera munduari zabalduz, zientifikoki edo politikoki lagundu ahal dutenengana bideak irekiz, zuen gurasoei egunerokotasun latz horretan lagunduz...

Eskerrik asko, zuongandik jakin dugu-lako zeintzuk diren zuen beharrian handienak. Alde batetik, integrazioa. Eta integrazioa ez da soilik eskolan laguntzaile bat zuentzat edukitzea, edota aulki gorpildunaren gainean zoaztenean herriko edozein

Enara

lekutara heldu ahal izateko oztopoak kentzea. Integrazioa aurpegira pena eduki barik begiratzea ere bada, zuen adineko beste umeeekin konplexu barik jolastea, ludotekaz gozatzea, azken unera arte bizitza normal bat egitea eta ez etxean estalita egotea... Bestetik, ikerketa. Zuen gaixotasunen kasuan hain garrantzitsua dena, eta gaixoen kopuruari begira bideratu ezin dena (gainera, Gure señeak elkartean bederatzi ume daudenean, hain gutxi ez dira izango), gizakien sufrimendua zenbakietan neurtu ezin da-eta.

Eta eskerrik asko, azkenik, gure artean utzi dizkiguzulako txapela kentzekoak diren zure gurasoak, Arantza eta Nestor, zuek utzitako hazia beste guztiongan ereitako.

Beno, Enaratxo maitea, egin bidaia zure neba Keparekin; zuk hegaz, eta Kepak Rayo izeneko auto gorrian. Zoazte ilargiraino eta buelta, hemen zuen zain izango gaituzue-eta.

Nire lehenengo liburua

Uda honetan liburu pare bat irakurriko dut, hondartzan, lasaitasunez... Pena da, baina, urtero bezala, liburu zuria edo asmoen liburua izango dela barruntatzen dut: inoiz irakurtzen ez duguna; ez geuk, ezta gure umee ere.

Haur eta gazteen literatura borborrean dago, gaur egun baino eskaintza handiagoa ez da inoiz egon. Baina literatura horrek ez du ezertarako balio, hura erabili, gozatu eta bizi egiten ez badugu. Bai, errazagoa da seme-alabak telebista edo bideo-joko anestesiko baten aurrean ipin-



ERIKA PEREDA
(Kazetaria)

tzea; oster, ez ditugu haien irudimena eta ahalmenak garatzen. Ipuin klasikoak, istorio berriak, asmatutakoak –zergatik ez?-, modan dauden album irudidunak... den-denak dira baliagarriak, motibazioa, gogoia eta interesa sortzeko. Irakurketa sustatzea garrantzitsua da, ideiak eta gogoetak gartzetza bezain inportantea. Txorierriko liburutegietan haur eta gazteen txokoak daude. Oso aukera ona liburu pare bat hartzeko, eta umeeekin hondartzan disfrutatzeko, lasaitasunez... Ah, nire lehenengo liburua amatxoaren kontuak izan ziren.

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kafea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 75

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Lezamak omendu du Máximo Agirre



a: Ederne Dalmau

Txakolinaren Egunak 2.500 lagun bildu zituen domekan, Lezaman. Hilario Astorki plazan eta inguruetan 44 saltoki jarri ziren, eta ekoizleen artean eskualdeko zortzi txakolingile izan ziren. Euren salmenta-postuan Bizkaiko Txakolinaren 2010eko uztat dastatzeko aukera egon zen, eta oso prezio onean. Lau euroren truke txakolina edateko lau tiket eman zituzten antolatzaileek, baita azokaren kristalezko kopa ere. Txakolina egunaren protagonista nagusia izan arren, ohiko produktuak ere jarri ziren salgai azokan: taloa, euskal pastela, gazta, barazkiak eta frutak, banaka batzuk aipatzearen. Era berean, Luma Gorri oilasko pintxoak saldu ziren euro batean, eta umeei zuzendutako tailerrak antolatu ziren. Bestalde, Ku-

rutze dantza taldeak dantzen agerraldia eskaini zuen, eta herriko elkarteek jendaurrean erakutsi zuten euren lana. Ibilaldia Bizkaiko ikastolen jaialdiaren ordezkariak ere Lezamaraino hurbildu ziren.

Zalantza barik, unerik hunkigarriena Máximo Agirre lezamarraren eskutik etorri zen. Agirre Bizkaiko txakolingilerik entzutetsuenetariko bat izan da, eta, bere ekoizpenaren kalitateari esker, 168 sari lortu ditu bere jarduera profesionalean. Agirrek orain dela hiru urte hartu zuen erretiroa, eta Udalak eta azokan izan ziren txakolingileek omenaldia egin zioten bere lana eskertzeko. Lezamarrak plaka bat jaso zuen oroigarritzat. Ekitaldian Alaitz Etxeandia Lezamako alkateak eta Ikerne Zulueta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko zuzendariak hartu zuten parte.

Oporretako argazkiek badute saria

Altzora Sondikako euskara elkarteak Argazki Lehiaketa antolatu du udako oporrei begira. Lehiaketara bidaletan, txangoetan... ateratako argazkiak aurkeztu ahaliko dira, eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez lan bi bidali ahaliko ditu. Argazkiek jpg formatua eduki behar dute, eta uztailaren 1etik 7ra bitartean agindu behar dira helbide elektronikoko honetara:

altzora.ee@gmail.com. Argazkiekin batera, egilearen izen-abizenak, telefonoa eta e-maila azaldu behar dira, baita argazkia non eta noiz atera den ere. Eta nahi izanez gero, esalditxo bat ere idatz daiteke hari buruz. Lehiaketaren irabazleak sari bi edukiko dituzte aukeran: bi pertsonarentzako bazkaria ala landetxe batean gaua pasatzea, gosaria barne. Altzora elkarteak irailean aurkeztuko da jendaurrean eta lehiaketaren finalistak egun horretan emango dira ezagutzera. Argazkiak ikusgai jarriko dira irailetik aurrera.



RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

GAMINIZ
JATETXEA
Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W
www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)
SANTI MAMI
ALBAITARITZA
Nerea Pedrosa Cole, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Matrikula, antzerki eskolan

Kukuke Txorierriko Antzerki Eskola matrikulazio-epaia zabaldu du datorren ikasturterako. Eskola Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleei dago zuzenduta, eta euskara hutsean izango da. Eskola Derioko Larrabarri baserrian emango da. Derion errol-datuta dauden gaztetxoek 70 euro ordaindu beharko dute hiruhilekoko; 85 euro, gainontzekoek. Informazio gehiago eskuratzeko edota antzerki eskolan izena emateko, 635 75 35 95 telefono zenbakira dei daiteke, edo tximintx@gmail.com helbide elektronikora mezu bat agindu.

Bazen behin Txorierrin...

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Ipuin bilduma kaleratu du. Bilduman, azken lau urteetan Txorierriko Ipuin lehiaketa irabazi duten ipuinak batu dira, baita bigarren saria lortu dutenak ere. Orotara 40 ipuinek osatzen dute bilduma. Mankomunitateak 300 ale argitaratu ditu eta, besteak beste, eskoletara, euskaltegietara eta liburutegietara aginduko dituzte. Egileek ere jasoko dute liburu bana. Azaldu dutenaren arabera, egitasmoak txorierritarren artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu, baita egileek euren sormena jendarean erakustea ere. Gainera, bilduma oso interesgarria da eskoletarako, hori material didaktikotzat erabil baitezakete.



Marea gorria, Bertokoren urteurrenean

a: Oihane Ziordia

Bertoko Zamudioko soinu tresnen elkarteak kandelak amatatu ditu. Elkarateak 15 urte bete ditu eta urteurrenaren haritik, jai zoragarria egin zuten ekainean. Marea gorriak herriko kaleak hartu zituen, izan ere, herritarrek elkartearen kamiseta jantzita zutela batu ziren egun horretarako antolatuta zeuden ekitaldietan. Txupinazoak hasiera eman zion jaiari, eta goizean zehar hauek izan ziren ikuskizunak: kalejira, jolasak, hamaiketakoak eta dultzaina-txalaparta-alboka-pandero-trikitia-kantu poteoa. Bazkarian 250 lagun bildu ziren, eta, beste-

ak beste, txahal errea dastatzeko aukera izan zuten. Ostean, omenaldia egin zitzaien 15 urteetan taldetik pasatu diren zuzendariei, gurasoei, irakasleei eta lagunei. Elkaratearen zapi bana eman zieten oroigarritzat. Eskolako ikasleek girotu zuten bazkalostea, eta Taberna Ibiltariak ere hartu zuen parte jaietan. Era berean, berbera egon zen, eta amaitu zenean, kantuz kantu ibili zen jendea. "Egun osoan izan zen giro ederra azpimarratuko genuke. Bertokokoek, neurri handi batean, giro hori lortzeko beste elkarteetan laguntza -Racing, Iraultza, Hiru bat eta Lagatzu, esate baterako- ezin bestekoa izan dugu".

ANULACIONES SEPTICAS
MUNGIA
Estoldierak
Garbilerak eta mantentze-lanak
Tuturak
Hole septikoen
24 orduko zerbitzua
Pioxa, 3C. 4. solairua | 48170 Zamudio (BIZKAIA)
T: 94 446 02 09 | Fax: 94 44675 99
mungia@saneamientosmungia.com | www.saneamientosmungia.com

GAZTELEKU TABERNA
Andra Mari, 6 - Larrabetzu
94 455 88 97
Osteko erreka
egiten doguz

ASADOR ARAMENDI
EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETAK
JAUNARTZEAK
Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

ANKAPALU
LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

Nafarroara eta Damaskora eramane gaitu Totik

Toti Martínez de Lezea idazle larrabeg-tzuarak liburu berria aurkeztu du: *Veneno para la corona* (Erein). Irakurleek betiko osagaiak topatuko dituzte eleberrian: mendekua, jeloskortasuna, borrokak, heriotza, maitasuna... Totik Jordana Gorriaren gorabeherak kontatu dizkigu azken lanean. Jordana gaztea zela bortxatu zuten gizon batzuek, eta hark pozoia erabiliko du mendekua hartu eta arerioak hiltzeko. Beste pertsonaia bat Juana Enriquez Aragoiko Fernandoren ama da.

Istoriaa Nafarroan gertatzen da, XVI. mendean. Aragoi eta Gaztelako erreinuek 1512an inbaditu zuten Nafarroa, eta horren 500. urteurrena gogora ekartzeko, eleberria idatzi du idazleak. "Nire nobelak ez dira historikoak, baina Erdi Aroan kokatzen ditut, aro hura izugarri atsegin dudalako. Gure historia ikastea gustatzen zait, eta liburuak idazteak aukera ematen dit historia ikertzeko". Liburua gaztelaniaz idatzi bada ere, euskarazko bertsioa aurkeztuko da Durangoko Azokarako.

Bestalde, Nur umeentzako liburu-sortaren ale berri bat plazaratuko du laster Totik. *Nur eta alfonbra hegalaria* (Erein) bildumaren seigarrena izango da. Nur Totiren iloba da eta iaz Siriara joan ziren, neskailaren aitaren familia ezagutzera.



Liburuaren pertsonaiak Damaskora eramane ditu egileak oraingo honetan. Ale berriaren marrazkien koloreak, behintzat, ezberdinak izango dira. "Margolaria pozpozik dabil. Aurreko liburuetan Euskal Herria genuen eszenatoki eta dena zen berdea; ale berrian, orde, horia eta marroia erabili ahal izan ditu margotzeko".

Lau hormen artean, Joseba Gotzonen azken lana


Joseba Gotzon Loiuko kantauto-reak *Lau hormen artean* lana aurkeztu berri du. Hori musikariaren 11. lan diskografikoa da eta Buenos Airesen grabatu eta nahastu du. Diskoa pop-rock estiloko zazpi abestik osatzen dute, eta euren artean katalanezko bertsio bi daude: *Aquets ulls* eta *No m'interessa*. "Lau hormen artean edozein gune izan daiteke: bulegoa, taberna, parlamentua, espetxea, logela... Norbanakoaren edo taldearen espazio bat, barne-mundu bat non pentsamenduak, sentimenduak edo ideiak konpartitzen eta ezkututzen ditugun".

Diskoa formatu digitalean eman da argitara eta Interneteko hainbat ataritan eros daiteke, hala nola, Itunes, Amazon eta Spotify. Diskoaren izen bera duen bideo-klipa ere grabatu dute eta hura atari digitaletan eta gizarte-sareetan dago ikusgai. Joseba Gotzonek egingo duen birak hainbat lekutara eramango du ekainetik azarora bitartean: Brasil, Txile, Argentina, Euskal Herria eta Katalunia, baina batzuk aipatzearren.




**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
pazergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

GALAIISA 
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana, 1-3, SONDIKA

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 SondiKA
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

**JANTZI JARAUNTSI TROUPE
AURKEZTU DA DERION**

Ekainean, Jantzi Jarauntsi Troupe elkarteak aurkeztu da jendaurrean, Larrabarri Derioko baserrian. Elkartea 25 lagunek osatzen dute, eta antzinako euskal jantzia berreskuratzea, eta hura hainbat ekintzaren bidez herriari eta herritarrei zabaltzea dute helburu. "Gure arbasoen bizimodua ezagutu nahi dugu, eta hura gure txikiei irakatsi". Aitor Elizegi sukaldariak eta Elena Unzueta "Bizkaiko Txakolina" Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzailearen presidenteak babestu dute Jantzi Jarauntsi Troupe elkarteak.



Julen Gabiriak irabazi du "Mikel Zarate" haur literaturako saria

a: Argazki Press

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak "Mikel Zarate" haur literaturako saria antolatu dute bigarren aldiz, eta Julen Gabiriak irabazi du. Gabiriak *Nire aita ikusezina* lana aurkeztu zuen lehiaketara. Istorioan hari bi nahasten ditu abilezia handiz. Batetik, aita arduratsu bat dugu, kezkatuta dabilena, haur txikia paseatzera ateratzen duenean inork jaramonik egiten ez diolako. Bestetik, etxeko

alaba zaharra dugu, Elene, neska bizkor eta argia, mutiletan hasi berria dena. Idazleak umorez eta sentiberatasunez kontatzen ditu familiako gorabeherak. Gabiriak 3.000 euro jasoko ditu saritzat eta lana udazkenean emango da argitara. Lehiaketara 19 lan aurkeztu dira aurten. Julen Gabiria Galdakaon jaio zen 1973. urtean. Bere lanen artean, *Connemara gure bihotzetan* eta *Han goitik itsasoa ikusten da* eleberriak azpimarra daitezke. Lan biek Igartza Saria irabazi dute.



Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

Menu bereak zaborburuan • Eguneko menua eta karta
Etanera erreserbatu plaza • Jauziak eta edonizak
Itxakia zaborburuan • Jantziak zaborburuan

R.º Gortolaza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Bizkaiko Txakolina

Gortolaza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO • BILBAO • GETXO • ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Goitioltzako jaiak

a: Jai-batzordea

Uztailaren 8tik 10era bitartean jaietan ibiliko dira Goitioltza auzoan, Lezaman. Aurrekoetan bezala, hango jai batzordeak egitarau dotorea prestatu du, herritar guztiei zuzendua: umeentzako jolasak, ibilaldiak, dastatzeak... Herri bazkarirako txartelak herriko dendetan jarri dituzte salgai. Umeek zortzi euro ordaindu beharko dute; eta nagusiek, 13 euro. Txartelak bazkarian bertan erosiz gero, 15 euro ordaindu beharko da. Mus txapelketari dagokionez, izena emateko, 20 euro ordaindu beharko da bikoteko, eta 15:30ean egingo dira inskripzioak. Irabazleak txapela, garaikurra eta inskripzio diruaren % 50 jasoko ditu saritzat; bigarrenak, garaikurra eta inskripzio diruaren % 30; eta hirugarrenak, garaikurra eta inskripzio diruaren % 20.

Uztailaren 8a, barikua

18:00: Txupinazoa.

18:00: Umeen Eguna: puzgarriak eta ardi latx mekanikoa.

22:00: Erromeria, Auskalo Non taldearekin.

Uztailaren 9a, zapatua

10:00: Goitioltza Ezagutu ibilaldia, Zorritzetan euskara taldearen eskutik.

15:00: Herri bazkaria.

18:00: Herri olinpiadak.

23:00: Erromeria, Trikiño taldearekin.



Uztailaren 10a, domeka

13:00: Produktuak dastatzea: txakolina, pintxoak... Zorritzetanen eskutik.

16:00: Mus Txapelketa.

17:00: Altxorraren Bila umei zuzendutako jolasa.

19:00: Saiheski jana.

20:00: Sari banaketa, traka eta jaien amaiera.

Jende-uholdea, Areneren omenaldian

Ekainaren 2an une hunkigarriak bizi ziren Derioko kiroldegian. Bertan 1.000 pertsona baino gehiago batu ziren, Areneri azken agurra emateko. Senideek, auzokideek eta lagunek neskatoaren gurasoen ondoan izan ziren, haiei euren babesa eta solidaritatea adierazteko. Hiru dantzarik Agurra dantzatu zuten Areneren omenez. Adorez eta sentimenduz betetako hitzak ere entzun ziren. Porrotx pailazoak Maite zaitut abestiaren bideoa agindu zuen, Areneren kanturik kutunena zelako hori. Pantailan neskatoaren argazkiak proiektatu ziren, omenaldian batutakoek bihotza ukabil batean sartuta zutela.

Arenek, gaixotasun sendaezina zuen Derioko neskatalak, agur esan zigun maiatzean, bost urte zituela. Umeak haurren zeroid olipofusinosi neuronal berankorra gaixotasuna zuen. Hura endekapenezko gaixotasuna da, eta Kepak, Arenen nebak, ere bazuen. Mutikoa orain dela urte bi hil zen, sei urte zituela. Kepa eta Areneren gurasoek gogor borrokatu dute, seme-alabek aukera bat izan zezaten eta haien bizi-kalitatea hobetzeko. Borroka horretatik elkarrekin bi sortu dira gurean: Kepa Sangroniz eta Gure señeak.

GOITIOLTZA, 7 B. ESKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

EXCAVACIONES AZURMENDI

epetargi@excavurmendi.com



MOBIL: 649 102 122
TEL/FAX: 944 554 158

KIMA

Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Goitioltza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

LEJARRENE JATETXEA

Garaitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PREMIOBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARTEKALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONO/FAX: 94 455 64 87

On egin kafetegia

Hamburgerak - otartekoak - sartenekoak
plater konbinatuak - gosariak 7etatik aurrera
pastelak enkarguz.

etxera eramateko zerbitzua

Artekalde auzoa, 48-behea
48196 Lezama

94 455 63 94



Lagatzuk pastel berezia atera dau bere urteurrenerako



Barruan gaztaina kremea daroa, eta oinarrian txokolate baltza eta berde koloreko koko-zatitxoak ditu

zamudioztarrentzako pastela egiteko, nork hobeto herriko gozotegia baino?"

Herri-bazkarian 500 lagun batzea espero dabe Lagatzukoek, eta horreek perretxiko gozoa pastela lehenengo aldiz dastatzeko aukerea izango dabe. "Honek Lagatzu alkarteak herriari egiten deusn beste ekarpen bat izatea dau helburu, zamudioztar guztiontzat zein bisitarien-tzat erakargarriena izan daitekena".

Gozo-gozoa

Errusiar pastela zamudioztar bihurtu dau Lagatzu alkarteak. Izan be, perretxiko gozoa pastelak errusiar pastelak egiteko erabiltzen diran oinarritzko osagai berberak ditu: azukerea eta zuringoa. Halanda be, Zamudiokoa berezia da haren itxurea zein gainontzeko osagaiak kontuan hartzen badoguz. Izenak adierazoten dauan bezala, perretxiko gozoa pastelak perretxiko itxurea dau. Barruan gaztaina kremea daroa, eta perretxikoaren txapela hankeagaz lotzeko, gurin krema erabili da. Oinarrian txokolate baltza eta berde koloreko koko-zatitxoak ditu. Gozo-gozoa emoten dau, eta dastatzeko irrikan gagoz zamudioztarrok zein txorierritarrok.

Lagatzu Zamudioko Euskera Alkartek 12. urteurrena ospatuko dau ekainaren 25ean, eta, aurreko urteetan egin dauan moduan, Lagatzu Eguna-Euskal Jaia antolatu dau egun horretarako. Beste hainbat ekitaldiren artean, herri bazkaria egingo dabe, eta hari kutxu berezia emon gura izan dautsoe, postre barria eskainiz: perretxiko gozoa pastela. "Bizkaiko Gozogileen Alkarteagaz jarri ginan harremanean, eta postrerako beren-beregi asmautako pastel bat egitea ideia polita iruditu jakun. Odolosteek ezagun egin dabe Za-

mudio inguruetan, eta gure pastelak harre-ra ona izan ezker, ha be herriaren beste ezaugarri bat izan leitekela pentsaten dogu". Zamudioztarrak "perretxikoak" izen-goitiagaitik dira ezagunak alboko herrietan, horregaitik alkarrekoek hasiera-hasieratik izan dabe argi perretxikoa pastelaren elementu nagusia izan behar zala, eta hari izena emon behar eutsala. Pastela Aramendi Zamudioko gozotegian egingo da, eta haren ardurea Jesus Vaquero pastelgileak hartuko dau. "Halan, herritarren eskura egongo da edozein momentutan. Gainera,

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta inplanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoien tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak

Anguleri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

ZURAS
Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

AM
Formación
y Traducciones

- Ingelera maila guztietan
- Eskolak enpresetan
- Cambridge Unibertsitateko azterketak prestatuta, EOI...
- Itzulpenak hizkuntza ezberdinetan
- Klaseak irailaren 14an hasiko dira

www.am-formacion.com | info@am-formacion.com

Garaloltza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erremerterri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08



Hormako Bisitaria

Sarritan, lanetik bueltatzen garenean, ez dugu ezer egiteko gogorik. Batez ere bero dagoen egun horietan. Duela pare bat aste, sekulako beroa zegoen egun horietako batean heldu nintzen etxera, eta han Bisitaria zegoen; harro-harro, niri itxaroten. Beroari jaramonik egin gabe, motorretik jaitsi nintzen. Zaratarik egin gabe, kamera atera eta booka egin nion hormako Bisitariari, etxeko aldapan bertan.

Argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

t: Itxaso Marina / a: Baga Biga

Kontzertu ona Zamudiokoa?

Oso ondo irten da. Lehengo urtean ere egon ginen hemen eta kontzertu hura ere ondo irten zen. Baina aurtengoan jende pilo bat egon da, eta oso giro ona. Oso gustura egon gara.

Esne beltza Fermin Muguruzaren biraren haritik sortu zen 2007an...

Ferminekin biran ibili ginen tronpetajolea, tronboi-jolea, DJa eta laurok; oso lagun egin ginen eta taldea sortzea otu zitzaigun. Musika ibilbidean egin ditudan lagunei deitu nien, konposatzen hasi nintzen... eta urte amaieran, 2008. urtearen

"Musika alaia transmitit

ESNE BELTZA | Musika taldea

Mundu zabaleko erritmoak entzun ziren Zamudioko jaietan, Esne beltza taldearen eskutik: global basque roots, cumbia, ska, corridoak, reggae, accid-jazz, hip-hop, rap arabiarra, rumba... Soinuen amalgamak berotu egin zuen publikoa eta kontzertu apartaz gozatu ginen. Xabi Solano taldearen abeslariak eta trikitilariak tarte bat eskaini zigun.



BARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna; bertoko okela
Iturrikoetxe, 7
Tfn: 94 455 89 41
LARRABETZU

GOIALDE
Peluteria
Estetika
94 455 81 44
Angulen 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia

Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

u nahi dugu"

hasieran, hasi ginen kontzertuak ematen. *Made in Euskal Herria* lehenengo diskoa 2008an grabatu genuen.

Zergatik Esne beltza?

Izena jarri behar zitzaion taldeari, eta hainbat ideiarekin ibili ginen bueltaka. Ferminen berak proposatu zigun izena: musika beltza egiten dugu, baina zuriak gara, eta kontraesan horretatik atera zen Esne beltza izena. Izugarri gustatu zitzaigun.

Bederatzi taldekide zarete, jende gehiegi eszenatoki gainean?

Beno, egia da jende asko garela, baina instrumentu ezberdin asko ere badira eta horrek aukera handia ematen digu jotzeko orduan. Dena dela, bederatzi kide ez gara, 14 baizik, teknikariak eta dantzaria ere hartzen ditugulako kontuan.

Oso proiektu ezberdinetan murgilduta ibili diren taldekideak, gainera.

Hori da, hain zuzen ere, taldearen sekretuari bat. Gehienak estilo ezberdinetatik gatoz eta horri esker fusioa lortzen dugu. Guk abesti bakoitzarekin jotzen dugu musika estilo batera, ez taldearekin berarekin.

Bertoko eta mundu osoko soinuak batzen dituzue zuen musikan.

Asko gustatzen zaigu bidaiatzea eta herri bakoitzetik zerbait ekartzen dugu grabatuta. Baina ez soilik musikaren aldetik; hizkuntzaren aldetik ere bai. Gurea ez da soilik euskaraz edota gaztelaniaz dagoen diskoa, japoniera, italiara, ingelesa, Senegalera hizkuntza... ere batu ditugu bertan. Oso disko bidaiaria egin nahi genuen, eta herrien arteko kultura-nahasketa azaldu. Baina betiere nondik gatozen ahaztu barik; hau da, euskara eta euskal kultura ahaztu barik. Kanpokoa hona ekartzea gustatzen zaigu, baina bertokoa kanpora eramatea ere bai.

Hori da, hain zuzen ere, zuen arrakastaren giltza?

Bai, abesti bakoitzari hainbat kolore ematen zaizkio eta oso gauza kuriosoa ateratzen da emaitzat. Jendeari gustatzen zaio. Publikoari zerbait ezberdina eskaintzen diogu, baina guretzat ere bada eragin-

garri polita, Euskal Herrikan kanpo atera eta bidaiatzeko aitzakia ematen digulako.

Bigarren diskoa 2010. urtean kalera- tu zenuten; bilakaera handia egon da *Made in Euskal Herria* lanetik *Noa* lane- ra?

Aldaketa dezente. Nahasketa, estilo... gehiago daude bigarreanean. Bestalde, 2008. urtean guztiak ginen hasiberriak elkarrekin jotzen eta urteak pasatu ahala taldekideen batze hori nabari da bigarren diskoan.

Udako biran murgilduta zabiltzate; nora eramango zaituzte?

Batez ere Euskal Herrian jotzera zuzendu dugu bira, baina kanpora ere bagoaz: Alemaniara, Irlandara, Argentinara... Eta estatu mailan, Kataluniara, Madrilera...

*"Herrien arteko kultura-
nahasketa azaldu nahi
dugu musikan, baina
betiere nondik gatozen
ahaztu barik"*

Zelako harrera du zuen musikak kanpoan?

Oso ona. Japonian, esate baterako, bizpahiru aldiz izan gara eta hangoena ikaragarria da, zelan gustatzen zaien trikitia... Esan bezala, beti saiatu gara Euskal Herriko esentzia kanpora eramaten, eta askotan ateratzen gara kalejiran trikitiarekin-eta... Jendea harritu egiten da: nondik atera da koadrila hori?

Festa-giroa bultzatu nahi duzuela entzun dizuegu; zuzenean jotzeko, musika serioegia egiten dela...

Musika alaia transmititu nahi dugu, eta ez du zertan soilik skan oinarrituta egon; reggaea, Afrikako dantzetan... ere oinarritu daiteke. Musika estiloak nahastea gustatzen zaigu, eta rocka ere gustatzen zaigu; azken urteotan, uste dut Euskal Herrian rockaz ahaztu egin garela. Eta horrelako talde bat beharrezkoa zela pentsatzen dut.

Proiekturik esku artean?

DVDa eta CDa aterako dugu abendura-ko, eta 2008tik 2011ra egin dugun ibilbidea jasoko dugu bertan; abesti berriak ere sartuko ditugu.



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*



“Zinemagintza ez da ez artea, ezta denbora-pasa ere; ogibidea da”

t: Itxaso Marina / a: J.G.L.

Iaz “zuzendari” sentitu omen zinen, zure lehendabiziko 16mmko film laburra filmatu zenuen-eta.

Kinema Deustuko zine eskolan hasi nintzen, eta ikasturtean zehar ikasle bakoitzak hiru lan aurkeztu behar izan genituen. Nirea, *La piscina*, aukeratu zuten 16mmtan filmatzeko, eta zine munduan zerbait egingo nuela pentsatzetik “zuzendari” izatera pasatu nintzen.

Aldaketa handia sumatuko zenuen, ezta?

Bai. Ni ohituta nago etxeko kamerarekin filmatzen, eta kamera profesionalaren bobinak biratzean egiten zuen zarata entzuteak ikaratu egiten ninduen hasieran. Gainera, filmazioan 16 lagunek gehi aktoreek hartu genuen parte, eta guztiak nire agindupean zeuden... Eta sinesten zuten nigan eta nire aginduetan; hunkitu egin ninduen horrek.

Pozik emaitzarekin?

Pozik baino pozago. *La piscina* birritan filmatu dut eta, egia esan, nahiz eta emaitza bera formatu ezberdinetan izan, hasieran kostatu zitzaidan lehengo laneatik aldentzea. Orduan, 16mmko lana lehenbizikoz ikusi nuenean, “aggg... hori nik egin al dut?” pentsatu nuen. Baina aitortu behar dut formatu honetan dena, irudiaren kalitatea eta abar, askoz hobeto gelditu dela.

Zertan datza han kontaktzen duzun istorioa?

Beldurrei, erronkei, arazoei... bizitzaren etapa guztietan egin behar diegula aurre.

IGOR GARCIA | zine ikaslea



Sondikoztar honek sentsibiltate handia du irudiarikiko, eta bizitzak zine munduan saiatzera eramandu. Esan digun bezala, mundu horretan aurkitu du bere lekua, eta etorkizunean argazki zuzendari moduan aritzea gus-tatuko litzaioke.

***La piscina* Zinebi zine-jaialdian eman zuten...**

Suerte handia izan nuen, zine eskolan hasi berria baino ez nintzen eta bat-batean nazioarteko zine-jaialdi batean ikusi nuen nire burua, ogibidean urteak dar-matzaten izen handiko profesionalekin batera. “Baina zer egiten ari naiz ni he-men? Zer dela-eta, 3.000 lanen artean, aukeratu dute nirea?” pentsatzen nuen. Zaila izango da hura bezalako beste au-dera bat izatea; horregatik pasatu nuen oso ondo.

Zergatik zine mundua?

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldeturen 1 ind, 18-8 nabes
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

POXPOLIN
OPARIAK ETA ARROPA

94 656 72 25

ARALAR, 4.
DERIO

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

“La piscina film laburrari esker “zuzendari” bihurtu naiz”

Irudia txiki-txikia nintzenetik gustatzen zait; argazkiak atera eta haien bitartez zerbait adierazi. Eta hamabost urte nituela hasi nintzen bideokamarekin filmatzen. Argazkilaritza ikasi dut, arte grafi-koen munduan sartu nintzen geroago... eta zine eskolan saiatu nintzen iaz. Lehenengo klaseetara joan eta argi izan nuen mundu honetan aritu nahi nuela. Plano bat filmatu, hura moztu eta beste plano bat atera, eta handik ideia bat sortzea izugarria delako, nire ustez. Enkoadratzea eta argiaren bitartez zerbait adieraztea margotzea bezala da niretzat.

Horregatik hain zuzen ere hartu duzu argazki zuzendaritza espezializatatzat?

Bai. Filmaren zuzendariak gehienbat aktoreekin egiten du lan, baina argazki zuzendariak film osoaren ikuspegi bisuala du arduratzat. Drama besteak sortzen du, eta argazki zuzendariak indartu egiten du drama hori. Kamara, enkoadratzea, argia, kolorea, testura, kontrastea... ardurapean ditu, eta bere lanari esker gauza da ikuslaren begirada leku batera edo bestera zuzenarazteko, ikusten ari dena uler dezan.



La piscina, YouTubean ikusgai

Argazki zuzendariei buruz hitz egingen badugu, zeintzuk dira zure kutunenak?

Asko! Nestor Almendros (*Días del cielo, Kramer contra Kramer...*), Vitorio Storaro (*El último tango en París, Apocalipsis now...*), Javier Aguirresarobe (*Mar adentro, Soldados de Salamina...*). Bestalde, suerte handia eduki dut, Xavi Giménezek (*Ágora, Red lights...*) eskola eman didalako.

Eta filma?

Días del cielo, zoragarria delako. Filma eguzkia sartzen den orduan grabatu zuten, eta argia zeruak ematen duena da. Oso argi leuna eta polita da. Halakoak filmatzeko denbora eduki behar da, eta diru asko, eta oso ona den argazki zuzendaria.

Ikaskideen lanetan hartu duzu parte, eta duela gutxi 16mmko film labur batean ibili zara argazki zuzendari; zelan?

Denetarik egon da. Hala ere, esan behar dut oso esperientzia positiboak eta onak izan direla, oso saiatuak diren lagunekin ibili naizelako. Egutero ahalik eta gehien ematen duten pertsonak dira, aurrera egiten dutenak. Bestalde, orain dela gutxi *Perditua* lana filmatu dut Jon Goikouria eta Ibon Belandiarekin, Sondi-kako Rallyrako. YouTubean eta Facebooken dago ikusgai.

Zelan dator etorkizuna?

Nahiko kikitzen nau, ez dakidalako zer egingo dudana, gauzak ondo irtengo diren... Edozein proiektutan hartuko nuke parte. Berdin dit zuzendaria nor den, eskatzen dudana bakarra da hark gogoia edukitzea, eta zintzoa izan dadila. Eta dakien guztia niri irakats diezadala, filmazioetan ikastea dudalako helburu. Zinemagintza ez da ez artea, ezta denbora-pasa ere, niretzat; ogibidea da, eta horretan gustatuko litzaidake aritzea.

*“Edozein proiektutan
hartuko nuke
parte. Berdin dit
zuzendaria nor den”*

Consulting Gondika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746
Mitzine, E. beheak
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

Cuadra Overol Txorierri
Rocio Astorkia Bordegaray
Cel. nº 4800759
Kepa Herguedas Manso
Cel. nº 4800757
María Conde Bilbao
Cel. nº 4800983
Mitzine 6. b. 48150 - Sondika (geltokiararen aurrean)
T.: 944 711 839 - Larmialdiak: 670 985 885 - www.cdxorierri.com

SARRIKOLA OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

HARTEGIA - URDAITEGIA
VICTOR
ARTISANAL-ELABORAZIOA
Oxela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak
Plater aurrekoizatu
Golri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

ATARRABI
Erremerterri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Inoiz baino parte-hartzaileagoak

Ekainaren 26tik uztailaren 3ra bitartean, San Pedro eta Santa Luzia jaiak ospatuko ditue Loiu. Hango jai-batzordeak prest dauka dana, herritarrak zein bisitariak jai giroan murgildu daitezcan.

a: Loiu Udal

Urti eta Ángel Loiu klubeko zuzendaritza-kideek pregoia ekainaren 28an irakurri arren, motorrak hilaren 26an hasiko dira berotzen. Egun horretan, futbol partiduak jokatu ditue eta, ondoren, bazkaria eukiko dabe Arrikibar Sondikako jatetxean. Bazkarira joateko, izena emon behar da aldez aurretik. Nagusiek 15 euro ordaindu beharko dabe; eta umeek, zortzi euro.

“Txapelketa sorta zabala antolatu da, haren inguruan ahalik eta herritar gehien biltzeko”



Azaldu deuskuen moduan, aurtengo jaiak inoiz baino parte-hartzaileagoak izatea hartu dabe erronkatzat, eta horregatik antolatu da txapelketa sorta zabala. Nobedadeen artean, Dantza eta Play Back Lehiaketak egingo dira lehenengo aldiz. Dantza Lehiaketan 15 urtetik gorako lagunek hartu ahal izango dabe parte, eta, besteak beste, kontuan hartuko dira erritmoa, teknika, bikotearen koordinazioa eta originaltasuna. Play Back Lehiaketa 10 urtetik gorako herritarrentzat da, eta kasu honetan be aurrekoan aitatutakoak baloratu ditu epaimahaiak. Era berean, Areto-futbol eta Pala Txapelketak egingo dira, eta gastronomiak be eukiko dau bere lekua: Tortilla, Pintxo eta Paella Txapelketak. Azken horrek dauka arrakastarik handiena, han jente asko batzen da-eta. Aurton, esate baterako, 73 koadrilak emon dabe izena. Gastronomiagaz jarraituz, sardina jatea egongo da eguenean, eta domekan herri-bazkaria egingo dabe Udaletxe osteko landan. Bakotzak bere janaria eroan beharko dau.

Gau zuria

Bestalde, hamaika ekintza antolatu dira umeentzat eta gazteentzat; esate baterako, skate tailerra, Motor Txapelketa, Pintura Lehiaketa eta apar jaia. Barrikua gau berezia izango da; izan be, antolatzaileek gura dabe herritar guztiak zuriz jantzita urtetea kalera. Sariak banatu dira zuriz jantzitakoetan. Eta jaietako gauak talde honeek girotuko ditue: Egan, Akerbeltz, DJ Xaibor eta Haitzama. Ganera, Tony Ronaldekin kontzertua eskiniko dau barikuan, eta betiko abestiak ekarriko ditu gogora.

Loiuk bilakaera ikusgarria euki dau azken hamarkadetan. Horren barri izan gura dauenak aukera ezin hobea eukiko dau aurtengo jaietan. “Loiuko orotzaipenak” erakusketara Zabaloetxeko eskolan ipiniko da ikusgai ekainaren 29an eta 30ean eta uztailaren 3an. Gainera, herriaren ganeke dokumentala emongo da zapatuan, frontoian, eta DVDak banatuko dira hara doazanen artean. Erakusketara eta dokumentala Jesús Sustatzak eta Luis Gómezek egin ditue. Pantxikoren agurrak amaiera emongo deutse jaietako domekan.



Uda ikastaroak
EGA, azterketak prestatzeko
ikastaroa eta mailak
Goizez ordutegia: 09:00-14:00
Arratsaldean ordutegia: 17:00-20:00

DBH
Euskara hobetu / mejora tu euskara
Ordutegia: 09:15-13:15
Matrikula zabalik ekainaren 30era arte

DERIOKO TXEPETXA AEK EUSKALTEGIA
Gorbea kalea 5, behea
944 543 967 • txepetxa@aeak.org







Egitaraua

Ekainaren 26a, domeka

10:30: Futbol partidua, Loiu Goia vs Loiu Behea (14 urtetik beherako umeak).

12:00: Futbol partidua, Loiu Goia vs Loiu Behea (nagusiak).

14:30: Bazkaria, Arrikibar jatetxean.

Ekainaren 28a, martitzena

18:00: Areto-futboleko Txapelketako lehen partidua.

19:00: Kalejirea, Ku klux fanfarreagaz, eta koadrilen jatsieria.

19:30: Pregoia, Urti eta Ángelen eskutik. Ostein, Kartel Lehiaketako sari banaketia.

22:00: Dantzaldia, Egan taldeagaz.

Ekainaren 29a, eguaztena

11:30: Kalejirea.

12:00: Mezea eta kontzertua, Pedro Guallarren eskutik. Ostein, aureskua.

14:30: Nagusien bazkaria, Zabaloetxe-ko frontoian.

18:00: Tortilla Lehiaketia, udaletxe osteko landan.

18:00-20:00: "Loiuko orotzaipenak"

erakusketia, Zabaloetxe-ko eskolan.

18:30: Haurrentzako jokoak.

20:00: Tortillen aurkezpena, Udaletxe-ko arkupeetan.

23:00: Dantzaldia, Akerbeltz taldeagaz.

Ekainaren 30a, eguena

11:30: Kalejirea.

12:00: Mezea, eta organu eta klarinete kontzertua, Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requejoren eskutik. Ostein, aureskua.

17:30: Areto-futboleko Txapelketako bigarren partidua.

18:00: Skate tailerra, skate pistan.

18:00: I. Dantza Lehiaketia.

18:00-20:00: "Loiuko orotzaipenak" erakusketia, Zabaloetxe-ko eskolan.

19:00: Ugelaxo-toka eta Tiragoma Lehiaketak, kirol pistako aterpean.

19:30: Sardina jatea.

20:30: I. Play Back Lehiaketia.

22:00: DJ Xaibor.

Uztailaren 1a, barikua

12:00: Pizza tailerra, 11 urtetik gorako gazteentzat. Gaztegunean.

18:00: Haurrentzako tailerrak, Herriko Plazan.

19:00: Areto-futboleko Txapelketako finala.

20:00: Pintxo Lehiaketia.

20:00: Pala Txapelketaren finalaurrekoa, Irtzan taldearen eskutik.

21:00: Pala Txapelketako bigarren finalaurrekoa, Irtzan taldearen eskutik.

Gau zuria: Jantzi zaitez zuriz!

23:00: Dantzaldia, Haitzama taldeagaz.

00:00: Tony Ronalden kontzertua.

01:00: Dantzaldia, Haitzama taldeagaz.

Uztailaren 2a, zapatua

10:00: Kalejirea.

10:00: VII. Paella Txapelketia.

11:00: Pintura Lehiaketia, umeentzat. Kirol pistako aterpean.

12:00: Umeentzako herri jolasak eta II. Moltó Motor Txapelketia.

14:00: Paellak aurkeztea.

17:00: Apar jaia.

18:00: Paella Txapelketako sari banaketia. Ostein, erromeria Hotza taldeagaz.

22:30: Loiuri buruzko dokumentala, frontoian.

23:30: Dantzaldia, Luhartz taldeagaz. Ostein, diskotekea.

Uztailaren 3a, domeka

10:00: Kalejirea.

11:00: Mezea.

11:30: Lur Gaineko Sokatiraren Euskadiko Txapelketia, Udaletxe osteko landan.

14:30: Herri bazkaria, Udaletxe osteko landan.

18:00-20:00: "Loiuko orotzaipenak" erakusketia, Zabaloetxe-ko eskolan.

18:30: Eriz magoaren saioa.

18:30: Pala Txapelketako 3. eta 4. postuak, Irtzan taldearen eskutik.

19:30: Pala Txapelketako finala, Irtzan taldearen eskutik.

20:30: Fanfarrea.

22:00: Pantxikoren agurra.

“Futbola utzi eta gero ikasi dut zer den bizitza”

t/a: Gaizka Eguskiza

Eman diezaiozun begirada bat zure kirol-ibilbideari. Lehenengo geralekua, Eibar.

Bai, bederatzi urte nituela sartu nintzen Athleticen. Bilbao Athleticen jokatu nuen, eta hurrengo denboraldian Eibar taldera joan nintzen utzita. Hor familia txikia topatu nuen, eta urte ona izan zen, Periko Alonso entrenatzailearen eskutik. Bosgarren postuan amaitu genuen, igorratik gertu-gertu. Abenduan, ni fitxatzen saiatu ziren Lehen Mailako talde batzuk. Azkenean, Eibarren jarraitzea erabaki genuen Athleticetik eta biok. Halaber, hurrengo urtean Athleticetako lehen taldearekin denboraldi-aurrea egingo nuela adostu genuen.

Baina ez zen hala gertatu...

Ez, aurkezpen ofizialaren aurreko egunean esan ziguten nik ez nuela parte hartuko. Nire ustez, denboraldi-aurrea egiteko eskubidea irabazi nuen, eta eskatzen nuen gauza bakarra horixe izan zen, denboraldi-aurrea egitea, eta entrenatzea. Baina ezetz esan zidaten, eta alde egitea erabaki nuen.

Zer gertatu zen?

Gauza asko hartu behar dira kontuan, Athleticen zein egoera bizi nuen aztertze-ko. Beheko maila guztietan Espainiako selekzioarekin jokatu dut, baina nire taldean, ustez harrobia zaintzen duena, ez zidaten lehenengo taldean jokatzeko aukerarik eman. Hori arraroa da. Geroago jakin dut batzordekide batzuek eta Luis Fernández entrenatzaileak ez zutela nahi anaia bik Athleticen jokatzeko. Eta neuri

JOSE FELIX GUERRERO | futbolari ohia eta enpresaria

Julen Guerreroren anaia izateagatik da ezaguna, baina nortasun propioa badu José Félixek. Bera ere futbolaria izan zen, eta gaur egun enpresari ekintzailea da. Lanpetuta dabil José Félix, eta telefonoa eskuan duela erantzun digu argi eta zintzo. Guerrerorarrak Lezaman bizi dira, eta “bere herrian” futbolaz egin dugu berba.



“Julenen anaia izan ez banintz, Athleticen jokatuko nukeen”

egokitu zitzaidan. Baina argi daukat: Julen anai izan ez banintz, Athleticen jokatuko nukeen.

Zuk alde egin zenuenean, Julenek zure egoera salatu zuen, eta horrek kaltea ekarri omen zion berari...

Ez dut uste. Garai hartan, Julen ikurra zen Athleticen, ibilbide paregabea egin zuen. Nire ibilbidea, ordea, oso txikia da berearekin alderatuta.

Etsipen handia izan zen Athleticen jokatu ez izana?

Bai, bizitzan izan dudan etsipen handiena izan da Athleticen jokatu ez izana. San Mamesen behin baino gehiagotan jokatu dut beste talde batzuekin, baina ez Athleticen kamiseta soinean neramala. Oso Athleticzalea naiz, eta seme-alabei talde zurigorrian jokatu nuela esan nahiko niekeen.

Nolako harremana duzu Julenekin? Haren gerizpean egon zarela uste duzu?

Harremana oso ona da. Argi dago bera oso jokalaria handia izan zela, eta bere mailara ailegatzea ia ezinezkoa izan zela. Gure arteko konparaketak beti egongo dira, baina ni bere anaia naiz eta harro nago.

Athletic utzi, eta Santanderreko Racing taldera joan zinen...

Bai, Athleticetik irten nintzenean, hainbat eskaintza jaso nituen. Azkenean, Santanderrera joan nintzen etxetik gertu zegoelako, eta nigan interes handia adierazi zutelako. Haiei esker, Lehen Mailan estreinako aldiz jokatzeke aukera izan



nuen. Debuta Bartzelonan egin nuen, Camp Nou zelaian, eta Luis Enrique defendatu behar izan nuen (kar, kar). Oso urte ona izan zen. Denboraldi berean, 21 urtez azpiko Europako Txapelketa irabazi nuen Espainiako selekzioarekin, eta partida guztiak jokatu nituen, baita finala ere.

Eta gero, Errealera.

Bai. Ni fitxatzeko gogoia adierazi zuten beti, baita Racingek fitxatu ninduenean ere. Hala ere, hasiera batean ez nuen onartu zarata handiegia sortu nahi ez nuelako. Eskaintza oso ona izan zen, eta gaur egun hura onartuko nukeen. Urtebete geroago, ordea, Donostiara joan nintzen, 400 milioiren truke. Garai hartan,

Errealak ordaindu zuen fitxaketarik garestiena. Athletici 200 milioiren truke eskaini nion neure burua, baina ezetz esan zuten. Orduan ulertu nuen zail-zaila izango zela Athleticen jokatzea. Donostiara joan nintzenean, aurrerapausoa izan zen: Errealak

“Bizitzan izan dudan etsipen handiena izan da Athleticen jokatu ez izana”

“Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik.”

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com

hirugarren postuan gelditu zen Ligan, eta UEFAko Kopa jokatu ahal izan nuen. Lehenengo urtea Donostian ona izan zen, baina hurrengo bietan oso triste amaitu nuen. Hirugarrenean, taldetik alderatu ninduten, eta orduan konturatu nintzen ia ezinezkoa zela bizkaitar batek Errealean arrakasta izatea. Athleticen berdin jokatzen dugu jokalariek guztiekin; euskaldunak diren bitartean, ez zaigu inporta nondik datozen; Errealean, ordea, gipuzkoarren aldeko jarrera dute beti.

Eta gero Eibarrera berriro, Bigarren Mailara.

Bai. Taldekide batek bere koinata aurkeztu zidan eta neska hura nire emaztea da gaur egun. Horregatik, beste arrazoi batzuen artean, beti izango dut gogoan Eibar. Berriro ondo ibili nintzen: bederatzi gol sartu nituen (lau, partida bakar batean), hainbat postutan jokatu nuen, baita erdiko aurrelari ere... Oso lagun onak egin nituen eta igoeratik gertu gelditu ginen. Blas Ziarreta izan zen entrenatzailea.

Azken geralekua, Burgos.

Bai. Errealeko kontratua desegin genuen, eta nik Lehen Mailara itzultzea nuen

*"la ezinezkoa da
bizkaitar batek
Errealean
arrakasta izatea"*

*"Batzuetan bizi dudak
bakardadea izan
da kirolean izan
dudan txarrena"*

helburu. Burgosera joan nintzen Carlos Terrazas entrenatzailearekin batera. Taldea Bigarren B Mailatik igo berria zen, eta jokalariek onak fitxatu zituen Lehen Mailara igotzeko. Hala ere, dirurik gabe gelditu zen eta, zoritxarrez, kluba desagertu egin zen.

Gaztea zinela, 26 urte zenituela, futbola uztea erabaki zenuen. Erabaki xelebrea eta ulergaitza, ezta?

Bai, goiz utzi nuen futbola, garai hartan oso aholku txarrak onartu nituelako. Gainera, eskaintzak jaso arren (Celta, Levante...), diru gutxi ematen zidaten. Gaur egun, eskarmentu handiagoa daukat, eta ziurrenik iraganean egin nuena ez nuke orain errepikatuko. Gaur egun dakidana kontuan hartuta, futbolaria hobea ere izango nintzateke. Jokalaria zarenean, burbui-laren barruan bizi zara: gaztea, dirua, arrakasta... Bizitza "erraza" duzu. Futbola utzi eta gero ikasi dut zer den bizitza.

Kirol mailan, zein izan da zure momenturik onena? Eta txarrena?

Txarrena, batzuetan sentitu dudak bakartasuna. Une onei dagokienez, Eibarraren eman nuen lehenengo denboraldia aipatu behar dut, izugarri ikasi nuelako. Oso gaztea nintzen eta eskarmentu handiko jokalariekin (Garmendia edo Artetxe) ibili nintzen. Europako gazte txapelketa ere gogoan dut.

Zer egin zenuen futbola utzi ondoren?

"Bizi-kalitate itzela dago Txorierrin"



Guerrerotarrak portugaletetar peto-petoak dira, baina duela 15 urte Lezamara etorri ziren bizitzera. Futbolaria izateari utzi zionean, José Félix ere etorri zen Txorierrira. "Hemen, Txorierrin, bizi-kalitate itzela dago zentzu guztietan: etxeak, eskolak... Emaztea Barakaldokoa da eta, ezkondu ginenean, txiki gelditu zitzaigun Lezama. Etxea aldatzeko zorian ere egon ginen. Hala ere, seme-alabak etorri zitzaizkigun eta gaur egun ez genuke Lezama inondik inora aldatuko. Kanpoan bizi diren lagunak animatzen ditut hona etortzera", dio José Félixek. "Orain erabat inplikaturik sentitzen gara Txorierrin: etxea eta lana ditugu bertan. Nire ustez, oso erakargarria da. Esan bezala, familia pozik bizi da eta, gainera, edozein zerbitzu duzu eskura, etxetik gertu. Bilbo ondo-ondoan gaude, komunikabideak onak dira...."

Hasiera batean, ez nekien zer egin, eta garai eroa izan zen. Geroago, kirol zuzen-dari ibili nintzen Amorebieta taldean. Ziu-rrerik, ez nengoen prest lan hura egiteko, eskarmentu txikia nuelako, baina behar txukuna egin nuen beheko mailetan. Beste alde batetik, komunikabide batzue-tan esatari hasi nintzen lanean.

Athleticeko hauteskundeei jarrai-tuko diezu, ezta? Zelan ikusten dituzu?

Ez dakit zer gertatuko den. Gustatuko litzaidake futbolari bizkaitarra berreskura-tzea. Kanpotik etorritako hainbat eta hainbat jokalarri daude klubeko gazte mailetan, eta, nire ustez, hori ez da nor-mala. Athleticen jokalarri onak fitxatu behar ditu, baina hemengoak baino hobeak ez direnean, ez dago fitxatzerik. Nik uste dut futbol bizkaitarra bultzatu behar dela. Eta hori da kezkatzen nauen gauza bakarra.

Zer deritzozu taldearen denboral-diari? Eta Caparrós entrenatzaileari?

Aurten emaitza paregabea lortu du taldeak: jokoaren inguruan eztabaida egon daiteke, ados, baina, emaitzari dagokionez, ez dago zalantzarik: oso ona

izan da. Caparrósek harrobia landu du, eta itxaropena ekarri die jokalarri gazteei: orain 14-15 urteko mutilek badakite lehe-nengo taldera ailegatzeko aukera dutela.



Lehen, 16 jokalarri igotzen ziren urtero gazte taldeetik Baskoniara, eta hortik Bil-bao Athleticera, baina gero bat ere ez, lehen taldera.

Futboleko egingo duzu lan etorki-zunean?

Entrenatzeko agiria badut, eta futbola izugarri gustatzen zait, baina ez dakit. Umeekin lan egitea gustatzen zait. Etxe-barrin kirol-eskola kudeatu dut eta pozik ibili naiz. Athleticen aurreko hauteskun-deetan eskaintzak jaso nituen Lezamako eskolan sartzeko, baina gaur egun nahiko lanpetuta nabil lanarekin eta familiarekin, eta gaur-gaurkoz nahikoa da. Izan ere, bi enpresa sortu ditut: batean, garbitze- eta mantentze-lanak egiten ditugu, besteak beste, Gran Casino Bilbaon eta Megapark merkataritza-gunean. Bizkaian dauden kontratu pribatu handienak dira biak. Enpresan ikasi dut zer den egunerokota-suna: lana bilatzea, nominak ordaintzea, ardura, ordutegiak.... Beste enpresan, kirol ekitaldiak antolatzen ditugu, baina hura zaletasuntzat hartzen dut. Biak enpresa egonkorrak dira eta apurka-apurka ari dira hazten, etengabe.

THOR
Uztailaren 1ean, Ostirala: 19:00etan
Uztailaren 3an, Igandea: 19:00etan

EL INOCENTE
Uztailaren 1ean, Ostirala: 21:00etan
Uztailaren 3an, Igandea: 21:00etan

CARS 2
Uztailaren 15ean, Ostirala: 19:00etan
Uztailaren 15ean, Ostirala: 21:00etan
Uztailaren 17an, Igandea: 19:00etan
Uztailaren 17an, Igandea: 21:00etan

KUNG FU PANDA 2
Uztailaren 28an, Ostirala: 19:00etan
Uztailaren 28an, Ostirala: 21:00etan
Uztailaren 31n, Igandea: 19:00etan
Uztailaren 31n, Igandea: 21:00etan

UZTAILA-ABUZTUA EGITARAUA

SOY EL NUMERO CUATRO
Uztailaren 9an
22:00
Lainomendi kalea

ESTA ABUELA ES MI PADRE
Uztailaren 23an
22:00
Besalde plaza

PIRATAS DEL CARIBE
En mareas misteriosas
Abuztuaren 6an
22:00
Kollitza plaza

COMO PERROS Y GATOS 2
La revancha
Abuztuaren 20an
22:00
Solube kalea

Sarrera doan. Eguraldi txarra denean,
Gurea Aretoa izango dira ekitaldiak

Harry Potter
y las reliquias
de la muerte,
parte 2
Abuztuaren 12an, Ostirala: 19:00etan
Abuztuaren 12an, Ostirala: 21:30etan
Abuztuaren 14an, Igandea: 19:00etan
Abuztuaren 14an, Igandea: 21:30etan

DIARIO DE GREG 2
LA LEY DE RODRICK
Abuztuaren 26an, Ostirala: 19:00etan
Abuztuaren 28an, Igandea: 19:00etan

BAD TEACHER
Abuztuaren 26an, Ostirala: 21:00etan
Abuztuaren 28an, Igandea: 21:00etan

EUSKO
www.euskosound.es

GUREA ARETOA
Lainomendi kalea, 2 - www.derioakoudala.net

kopiarke
701 84026147
kopiarke@euskosound.net

Zapozrez beterikoak

Uztailaren 24tik abuztuaren 3ra arte
Santiago, Santana, San Inazio eta San
Esteban ospatuko dabez Derioko auzoan



a: Aldekoneko jai-batzordea

Jaiei domeka goizean emongo deustee hasiera eta egun horretan, hain zuzen be, eukiko doguz jaiek aurton ekarriko deuskuezan nobedade biak. Halan,

eguerdiko ordu batetan Barrenatzaileen Euskal Herriko Txapelketaren finala jokatuko da. Finalean sei bikotek hartuko dabe parte. Era berean, txakurrak zelan hezten diran zuzenean ikusteko aukerea egongo da arratsaldean.

Osterantzean, Aldekoneko jaietan ohiko formulak errepikauko dira, oso erantzun ona eukiten dabelako. Gastronomia Txapelketak jai-egitarauaren ekin-tzarik arrakastatsuenetarikoak dira. Aur-ton txapelketa honeek antolatu dira: Paella, Tortilla, Buztana eta Sukalkia. Sariak jatekoak baizen ederrak izango dira. Paella eta Tortilla Txapelketei jagokenez, 70 euro eta garaikurra emongo jake irabazle-ari; 50 euro eta garaikurra, bigarrenari; eta 30 euro eta garaikurra, hirugarrenari. Bestalde, 150 euro eta garaikurra jasoko ditu Buztan Txapelketearen irabazleak; 100 euro eta garaikurra, bigarren postua lortzen dauenak; eta 50 euro eta garaikurra, hirugarrenak. Sukalkirik goxoenak 100 euro eta garaikurra jasoko ditu saritzat; 70 euro eta garaikurra, bigarren goxoenak; eta 30 euro eta garaikurra, hirugarrenak.

Mozorroak

Euskerearen Eguna Santiago Egunerako antolatu dabe eta, besteak beste, Mus Txapelketea eta dantzen ekitaldia egongo dira. Baina folkloze gozeteko aukerea ez dogu bakarrik egun horretan eukiko. Izan be, San Inazio Egunean atzerriko dantza talde bateko partaideek euren herrialdeko ohiturak eta dantzak hurbilduko dabez Aldekoneraino.

Goiz guztietan kalejirea egongo da Gurari taldearen eskutik, eta umee be euren lekua eukiko dabe jaietan: puzgariak, apar jaia... Gainera, zapatua oso egun berezia izango da, auzokideak kalera mozorrotuta aterako diralako. Idi-probak, kopauak, txitxi-burruntzia... izango dira Aldekonen topauko doguzan beste ekintza erakargarri batzuk. Gaueko kontzertuak eta animazioa honeen kontura izango dira: Hip Hop talde bat, Saltoka, Haitzama eta I&P animazioa. Edade guztietako auzotar eta bisitariei zuzendutako jai-egitaraua prestau dau Aldekoneko jai-batzordeak eta, ziur asko, jaiak luze joko dau.

Mascotas Maider

Koapainiako animaliak
Txakurren ile-apaindegia
Osagarriak
Elkadarak

Hemigalde eta Gernikako erbolaren tarteak, 48160 Derio - T: 94 404 21 80

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txaneroi etxetik: 5-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa:
94 454 44 58
a.amondarain@euskalnet.net

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

Larrabarri, 1 Ionia - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com



Egitaraua

Uztailak 24, domeka

11:00: Txupinazoa eta kalejirea.
12:00: Mezea.
13:00: Barrenatzaileen Euskal Herriko Txapelketearen finala (bikoteka).
14:30: Paella Txapelketea.
17:00: Sariak banatzea.
18:00: Txakur heziketaren erakustaldia.
20:30: Txixi-burruntzia.
22:00: Hip-hop.

Uztailak 25, astelehena. Santiago Eguna, Euskarearen Eguna

11:00: Kalejirea, Gurari taldeagaz.
12:00: Mezea.
13:00: Dantzen agerraldia, Lainomendi taldearen eskutik.
16:30: Mus Txapelketea.
18:00: Apar jaia.
19:00: Tortilla Txapelketea.
20:30: Sariak banatzea.
21:00: Erromeria, Saltoka taldeagaz.

Uztailak 26, martitzena. Santana

11:00: Kalejirea, Gurari taldeagaz.
12:00: Mezea.
13:00: Sukalkia dastatzea.

Uztailak 30, zapatua

12:00: Puzgarriak.
19:30: Mozorro eta gurdien kalejirea.
21:00: Mozorro Lehiaketea.
22:30: Mozorro Lehiaketearen sariak banatzea.
23:00: Gau-jaia, Haitzama taldeagaz.

Uztailak 31, domeka. San Inazio

11:00: Kalejira, Gurari taldeagaz.
12:00: Mezea eta nagusientzako kopaua.
13:00: Nazinoarteko folklorearen erakustaldia.
14:30: Buztan Txapelketea.
15:30: Buztan Txapelketearen sariak banatzea.
19:00: Idi-probak.
21:00: Tolín mariachiaren emonaldia.

Abuztuak 3, martitzena. San Esteban

12:00: Mezea.
13:00: Kopaua.
14:30: Sukalki Txapelketea.
16:30: Mus eta Briska Txapelketeak.
20:00: Sariak banatzea.
20:00: Txixi-burruntzia.
21:00: I&P animazinoa.



EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
13:00etik 15:30ra arte
20:00etik 23:30ra arte
Etzera eramateko
zerbitzua: 1€

Bestorrena 5, Behea 48160 DERIO

T: 94 454 55 55

aldehone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrikortuak doan

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitatea:
umeak

Aislamientos Derio

Tabiak

Pladurrezko
sabalak eta
apalategiak

Sabal
erregistragarriak

Aiertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientoderio.com

Isolamendu
termiko eta
akustikoa



ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 85

639 57 98 48 - 639 58 25 47



Mungialde etorbidea, 3
t: 94 656 49 09
www.pensionudondo.com




*Txakur eta katuentzako pentsua
Prezio onean
Etzera eramaten dizugu*

608 16 76 18
gorkiguay@hotmail.com

Gorka García Llamosas

Garikoitz, Txaber eta Mikel serio jarri dira argazkia ateratzeko paratu direnean. Baina bigarren klika entzun ostean, jarrera dibertigarriak egingen hasi dira objektiboari begira. Amak etorri dira geroago, eta zintzo-zintzo ibili dira. Garikoitzek eta Txaberrek sei urte dituzte eta Mikelek laster beteko ditu. Haien adinako beste edozein umek bezala, oso aktiboak dira eta begiratu bihurria dute. Hala ere, gaixotasunari egin behar diote aurre egunero, haien gorputzak ez baitu elikagaririk onartzen.

Jan ezinik



Osasun zerbitzutik orokorrean tratatu ona jaso badute ere, askotan bakarrik sentitu direla azaldu digute. "Batzuetan, haiek ere ez dakitelako nola lagundu, edo haiengana beste arrazoi batzuegatik jo dugunean, aho bete hortz gelditu direlako, zer egin ez dakitela". Gaixotasunak dakartzan eguneroko arazoei aurre egiteko, bata bestearengana jotzen du gehienetan, eta, euren esperientzia abiapuntutzat harturik saiatzan dira zalantzak eta kezak argitzen. Semeen gaixotasunak izenik ere ez duelako, eta medikuek ezer gutxi dakitelako hari buruz. "Guk dakigula, bost kasu baino

Ikerketari ekiteko beharra

ez daude Estatu osoan". Maite Erresuma Batuan ibili zen orain urtebete, hango espezialista baten kontsultan, eta hark azaldu zion 50 kasu tratatzen ari dela eta parametro berberak izaten direla kasu guztietan, baina ikerketa faltaren ondorioz ezin dela datu osotuagorik eman.

Kontxik eta Anak Garmitxa elkartea sortu dute. "Etorkizuna zalantzarria da eta egunetik egunera bizi gara. Horregatik, ikerketara zuzendu behar ditugu indarrak. Elkarteari esker batzen den diru

guztia ikerketarako izango da". Horri loturik, plastikozko tapoiak batzeko kanpaina jarri dute abian Txorierriko Mankomunitatearekin eta Ortuellako Udalarekin batera. Tapoiak batzeko ontziak leku hauetan jarri dituzte: Loiuako Udaletxean, Sondikako eskolan eta Artebe kiroldegian, Derioko eskolan eta Kultur Birikan, Zamudioko eskolan, Lezamako Udaletxean eta eskolan, eta Larrabetzuko Udaletxean eta eskolan.

t/a: Itxaso Marina

Garikoitzen ama da Kontxi (Larrabetzu); Txaberrena da Maite (Derio); eta Mikelena, Ana (Ortuella). Adierazi digute-nez, zehatz-mehatz ez dakite zein den semeek duten gaixotasuna, arraroa delako eta hari buruzko ikerketarik ez dagoelako. Argi dagoena da semeek ezin dutela elikagairik hartu, elikagaiek eragin suntsitzaileak dituztelako haien organismoan. Gaixotasuna hasiera-hasieratik azaldu zen Garikoitz eta Mikelengan; Txaberren kasuan, zazpi hilabete bete zituen.

Umeek aminoazido-formula bat hartzen dute elikagaitzat. Urarekin nahasten diren hautsak dira, eta elikagaia sabelean duten zulotxo baten bitartez hartzen dute. Gutxi gorabehera hiru ordutik behin hartzen dute elikagaia egunean; gauean, makina batek ematen die. Denboraldi batzuetan, egun osoa eman behar izan du Mikelek makinara konektatuta.

Hiru umeek sintoma berdin-berdinak dituzte: hanketako eta buruko mina, neke handia, neurritz gainera izerdia, hortz-arazoak, oinaze atalase oso altua, usainekiko sentiberatasun handia, bat-bateko umore-aldaketak, gauzak ahaztea... Hala ere, gaur-gaurkoz ezin da jakin sintomak gaixotasunaren edo hartzen duten elikadura motaren ondorio diren. "Analisiak aldian behin egiten zaizkie eta, nolako gaixotasuna duten kontuan hartzen bada, emaitzak ez daude gaizki, baina oso eskasak dira haien adineko umeentzat".

Txaber patata eta ogia jaten dituen bakarra da. Baina guztiek dastatu dituzte jangaiak, medikuek noizean behin janaria ematen dietelako, gorputzak zelako erantzuna duen jakiteko. "Erantzuna ez da izaten berehalakoa. Erraz azaltzeko esan dezakegu janariak gorputza pixkanaka-pixkanaka pozoituko balie bezala dela. Txikiak direnean, gurasook konturatzen gara zerbait ez doala ondo, baina, umeak hazten doazen neurrian, zailagoa izaten da. Haiak badakitelako, jangairen batek min eginez gero, utzi egin beharko diotela jateari. Eta nahiago izaten dute txarto pasatu, komu-nera ezkutuan joan... Oso gogorra izaten da guztiontzat, eta azkenean korrika jo behar izaten dugu larrialdi zerbitzuetara, ospitaleratu egin behar izaten dira...". Besteak beste, ondorio hauek izaten dituzte gaixotasuna agertzen zaienean: gonbitoak, beheko handiak, digestio-aparatua hantitu egiten zaie, heste meharra lodiaren barruan sartzen zaie...

Usaindu

Gaixotasunaren ondorio fisikoak gogorrek badira, psikologikoez ere atsekabea sortzen dute umeengan eta euren familiengan. "Egunero borrokatu behar dugu azaltzeko, jatekorik hartzen ez badute, ez dela guk ez diegulako eman nahi, baizik eta jatekoek min egiten dietelako. Eta medikuari ezer esan barik emateko eskatzen digute; minik eginez gero, medikuari ez diogula ezer esango eta ez dutela jateko hori berriro hartuko, baina, on eginez gero, jan ahal dutela adieraziko diogula. Jakin

"Umeek aminoazido-formula bat hartzen dute elikagaitzat, jakiek eragin suntsitzaileak dituztelako haien organismoan"

badakite euren gaixotasunak ez duela berehalako konponbiderik". Jakiak usaintzen uzteko ere eskaintzen diete gurasoei, baina jaki batzuekiko kontaktu hutsak ere erreakzioa eragiten die kasu batzuetan.

Mahai inguruan batzeko ohitura dugu, eguneko otorduak egiteko eta urtebetetzeak eta data bereziak ospatzeko. Ospakizunok korapilatsuagoak izaten dira hiru familia hauen etxean, eta moldatu behar izaten duten umeen beharrianetara, gogo-aldarteetara, nahietara.... Horrela, umeak batzuetan familia osoarekin batera esertzen dira mahaira; eta beste batzuetan, ez. Etxetik kanpoko ekintzak ere korapilatsuak izaten dira. "Sasoi batzuetan ez duzu ezertarako gogorik izaten, eta nahiago izaten duzu etxean gelditu; baina beste batzuetan, indar handiagoa izaten duzu eta, edozein familia bezala, kanpoan irteten zara eguna pasatzera, igerilekura joaten zara, lagunekin gelditu... Eta zurekin dagoen jendeak ulertzen badu zure arazoa, eta umearen beharrianetara moldatzen bada, askoz eramangarriagoa izaten da".



lurrindegia **MAMEN** mertzeria
Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 456 79 38 25

harategia - urdalategia
MIGUEL



ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Ikastegi homologatua

**LARRABETZU
MUSIKA ESKOLA**
tel: 94 455 70 66

MATRIKULA ZABALIK

SARRERA-PROBAK

Derion:
Astearteetan-ostegunetan
16:00-20:00

Lezaman:
Astelehenetan-asteazkenetan
16:00-20:00

Larrabetzun:
Egunero

musika-tresna guztiak:
pianoa
klarinetea
biolina
txistua
abesbatza
soinua
armonia
...

“Aukera paregabea da arnasgune bat eraikitzeko”

JASONE MENDIZABAL | Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren zuzendaria

Baserri Antzokiak euskaldunon topagunea izatea du helburuen artean.

Euskaldunok gure egunerokotasunean euskaraz bizitzeko, harremanak izateko, eta gozatzeko aukerak eta espazioak topatzea ez da beti erraza izaten. Baserri Antzokia moduko proiektu batek, topaleku erreferentzial gisa, espazio garrantzitsu bat bete dezake euskaldunentzat. Eta, zalantzarik gabe, zentzu horretan aukera paregabea da arnasgune bat eraikitzeko. Alde batetik, elkartzeko ikur bat izan daiteke euskaldunentzat; eta bestetik, espazio irekia da herritar guztientzat.

Txorierriko Baserri Antzokia euskal giroan murgiltzeko gunea eskainiko die eskualdeko zein inguruetako euskaldunei. Halako tokien garrantziaz aritu gara Jasone Mendizabalekin.

Arnasguneak antolatzea eta zaintzea, hain zuzen ere, beharrezkotzat jotzen Topaguneak azken kongresuan.

Gaur egun, euskaldun guztiok bagara behintzat elebidunak, eta euskaraz ez dakiten herritarrekin bizi gara espazio berean, auzo berean. Egoera honetan, zoritxarrez, euskarak ditu galtzeko guztiak, komunikazioaren edota edukazioaren izenean, bestearen hizkuntza lehenesten baita. Baina euskarak, inon izatekotan, Euskal Herrian eta Euskal Herriko herrietan du, euskaldunon bitartez, gartzeko aukera. Beraz, ezinbestekoa da espazioak eta funtzioak eraikitzea, euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko. Espazio hegemonikoak, zeinetan jakintzat ematen baita hor naturalena euskaraz aritzea dela.

Zelako ekarpena egingo die Baserri Antzokiak Txorierriri eta herritarrei?

Hau bezalako espazio ireki batek herritar guztiei zerbitzua emateko boka-zioa du; horiek euskaldunak izan ala ez. Baserri Antzokiaren balio erantsia beste nonbaitetik dator: euskaldunek pentsatutako, diseinatutako eta eraikitako espazioa izanda, zerbitzua euskaraz eskainiko dio nahi duen guztiari, eta han lasaitasun eta naturaltasun osoz aritu ahal izango da euskaraz. Horrezaz gainera, euskarazko kultur adierazpenetarako eta aisialdirako programak antolatuz gero, arnasgune bizigarria suerta daiteke Txorierriko eta ingurueta-ko euskaldunentzat.

Eta erdaldunei?

“Elkartzeko ikur bat izan daiteke euskaldunentzat; eta espazio irekia, herritar guztientzat”

Halako espazio batek euskaldunak ikusarazteko, eta euskal kulturari prestigioa eman eta hura zabaltzeko balio du. Euskaraz ez dakitenei ere egon behar du irekia, ezinbestean, hori gure eguneroko harreman sarean isla delako, baina erdigunea beti euskal identitatean kokatuta.

Etorkizuneko proiektua da?

Totoaneko kideak, inguruko eragile eta herritarren artean ilusioa pizteko, erakusten ari diren ahalmena azpimarratuko nuke, eta horrek ematen duen bermea. Antzokia euskaldunak eta herritarrak ilusioz kutsatzen imajinatzen dut etorkizunean, euskaldunen komunitatea, erdigunean, modu erakargarrian kokatuta.

Etorkizuna urteetan bermatzeko, zeri eutsi beharko dio?

Gaur egungo krisi garaia ez da errazena, hau bezalako proiektu bati bultzada emateko. Antzokiaren barne bizitzak euskaldunon komunitatea biziberritzeko bokazioari tinko eutsi diezaiola, bideragarritasun ekonomikoak jar ditzakeen baldintzen gainetik. Proiektuaren atzean dagoen giza taldea ezagututa, erronka biei eutsiko diela zalantzarik ez dut.



a: Lurdes Etxebarria

Asteburu bizia euki eben larrabetzua-
rrek ekainaren 3tik 5era bitartean. Herria
azoka erraldoia bilakatu zan hirugarren
aldiz, eta literatura, hainbat bidetan
adierazota, asteburuko protagonista na-
gusia izan zan. Literaturiari Kukubiltxo
eta Ruper Ordorikaren eskutik emon
eutsien hasierea, eta handik aurrera adin
eta gustu guztiei zuzendutako ekitaldi
andanak hartu eban txandea, eten barik.
“Programa osatua izan dala uste dogu,
eta hara batu dan lagun-kopurua kon-
tuan hartzen bada, pozik egoteko modu-
koa”, esan deuskue antolatzaileek. Beste-
ak beste, liburuen aurkezpenak, mahai-
inguruak, antzezlanak, kontzertuak, oler-
ki emonaldiak, ipuin kontalariak, musika-
riak eta marrazkilariak batu ditu Literatu-
riaren aurtengo edizinoak; ia danetarik.
Herri bazkarietara be lagun asko hurbildu
ziran. “Orain eurek, bisitariak, dabe ber-
bea, baina guk jasotako balorazioak bai-
korrak izan dira oso. Eta betiko moduan,
datorren urtera jarri gara begira, kontura-
tu gabe”.

Literaturiaren laugarren edizinoia eu-
kiko dogu datorren urtean, beraz. Ha
apurka-apurka sendotzen eta heltzen
doan azokea dalako, eta han gogoia eta
ilusinoia herritar guztiek jarten dabezala-
ko. Aitatu deuskuen moduan, Literatura
irakurle eta idazleen talde baten topagu-
nea da; literaturaz gozau eta haren gaine-
an hausnarketea egiten dauan talde
baten topagunea, hain zuzen be. Taldeki-

Entzun, disfrutau egin dogu literatura

Larrabetzu euskal idazle-
en eta irakurleen topagu-
ne bihurtu da hiru egune-
an; izan be, ekainean Lite-
raturia euskera hutsezko
azokea egin da bertan.
Literaturea irakurri, en-
tzun, ikusi, disfrutau eta
ikutu egin da herriko txo-
ko guztietan.

deak nahikoa modu naturalean jarten dira
harremanetan, eta hainbat adierazpene-
tako ekitaldietan hartzen dabez parte.
“Ondorioz, pentsetekoa da gogoz eta
goxo egindako beharrak gutxika-gutxika
uztea ekarriko dauala”.

Transmisinoia

Aurton eztabaidagai euki dabezan
gaien artean, irakurzaletasunaren trans-
misinoia egon da. Larrabetzuko Literatura
Eskolak mahai-ingurua antolatu dau 111
Akademiagaz eta Euskal Herriko hainbat
irakurle taldegaz batera. Literaturearen



transmisinoia eragile askoren esku dagoa-
la jakinik, gogoeta egin dabe herrietako
irakurle taldeek ha susteteko hartu behar
daben eginkizunaren gainean. “Irakurle
talde bakotzak bere ezaugarriak baditue-
la kontuan hartuta, gazteek dabezan zale-
tasunen eta jokabideen araberrako neu-
rriak hartu beharko doguzala konturatu
gara. Geu joan behar gara eurengana,
etorriko diran zain egon barik”.

Literaturia Larrabetzuko Literatura
Eskolaren baitan sortutako ekimena bada
be, herriko taldeek eta eragileek be ahale-
ginak batu dabez bere inguruan. Ekime-
nak literaturea ahalik eta era zabalenean
bizi eta ha kaleratzea dau helburu. Esan
bezala, badabe buruan datorren urteko
edizinoia, eta, horretarako, hainbat helbu-
ru hartu dabez: lagun kopurua handitu,
kalidadeari eutsi, jentearen ekarpenetik
elikatatu, herrian dagoan auzolana jagon...
“Hemendik aurrera, urte osoa dogu gizar-
teko eremuetan eragiteko eta bertan sor-
tuko diran asmo barriei ekiteko. Hau da
gure erronkea”.

*“Programa osatua
izan dala uste
dogu, pozik
egoteko modukoa”*



"Ordu asko eta asko eman ditut futboleant"

MARIANO RUIZ | Zamudioko entrenatzaile ohia

Futboleant ezer ez da betiko, are gutxiago entrenatzailea, baina batzuetan salbuespenak daude. Eta haietako bat gertu dugu, Zamudio klubean. Mariano Ruiz entrenatzaileak 19 urte eman ditu talde zuriaren aulkian, eta agur esateko garaia heldu zaio. AIKOR! aldizkariak atzera begiratu dio bilbotarrarekin batera.

t: Gaizka Eguskiza / a: Zamudio SD

Zelan bizi izan zenuen klubak egindako omenaldia?

Oso ondo, oso polita izan zen. Eskertzekoa da klubak eta bertan bildu zirenek egindako omenaldia.

Zamudio taldeko aulkian 19 urte eman duzu, denbora luzea, eta hori ez da batere ohikoa...

Ez. Entrenatzaile askok diote zikloek 4-5 urte iraun behar dutela. Ni gustura ibili naiz Zamudion; Santutxun ere 14 urte eman nuen. Hainbeste urte eman dut klubak konfiantza handia izan duelako niregan. Gainera, talde onak entrenatu ditut, eta hainbat partida irabazi ditugu.

Zergatik utzi diozu entrenatzeari?

Entrenatzeko gogorik ez dut galdu, eta ondo sentitzen naiz. Hala ere, uzteko garaia iritsi zait. Izan ere, ez naiz gaztea, eta nagusia zarenean, une txarrek eragin handiagoa dute gazteagoa zarenean baino. Presioa eta lana handiak dira. Orain nire atzetik datozenek hartuko dute lekukoa, eta ziur nago haiek ondo

egingo dutena. Erabakia gogorra izan da, eta badakit hasieran arraro egingo zaidala, baina moldatuko naiz.

Zelan baloratuko zenuke zure ibilbidea?

Beti egin dut lan klubaren alde, eta oso gogor. Seriotasuna eta errespetua erakutsi dizkiet batzarkideei, jokalariei, arerioei eta zaletuei. Profesionala izan banintz moduan egin dut behar.

Zein izan da zure unerik onena eta txarrena?

Oso pozgarria izan da klubean hainbeste urte ematea. Une txar bat, adibidez, 1994an gertatu zen: lidergoari eutsi genion denboraldi osoan zehar, baina azken partida berdindu genuen etxean, eta

"Profesionala banintz moduan egin dut entrenatzaile beharra"



ezin izan ginen igo. Oso tristea izan zen, denboraldi bikaina egin baikenuen. Momentu onari dagokionez, aurtengo denboraldia aipatuko nuke. Taldeak erakutsi duena baino maila altuagoa du, baina azken partidetara arte sufritu dugu mailari eusteko. Nire azken urtean jaitsi bagina, oso penagarria izango litzatekeen.

Bigarren B Mailan ibili zen Zamudio 1996-97ko denboraldian. Hori berriro egiteko aukerarik badu klubak?

Ezinezkoa ez, baina zail-zaila izango litzateke. Hirugarren Mailako taldeek maila altua dute. Lehen, duela gutxi, entrenatzaileak baino ez zuen taldea kudeatzen; orain, ordea, laguntzaileen, prestatzaile fisikoaren edo atezainen entrenatzailearen laguntza du. Hori aurrerapena da, eta taldeen mailak ere gora egiten du. Zelaia eta prestakuntza fisikoa ere hobekien dira. Era berean, igotzeko kanporaketetan edozeinen kontra jokatu dezakezu; eta lehen, aldiz, zure inguruko taldeen kontra jokatzen genuen.

Zer goraipatuko zenuke klubari buruz?

Albaitaritza
HENAR ORTUONDO
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefona: 944 543 705

Zapalak
Atropa
Osagarriak
Nazioarteko markak

ganix

Txanekin erabiltzea: 9-10. lokala
(Arteaga eraikina)
48160 DERIO
94 454 20 13
www.ganix.com



Omenaldi polita egin zioten klubak eta herriak Maria-nori

Zamudio Bilbotik gertu dago, eta Bizkaia-arekin dituen komunikabideak onak dira. Horren ondorioz, jokalariek jarrera ona adierazten dute hona etortzeko. Gainera, klub serioa da, hau da, sinatzen duena ordaindu egiten du. Azkenik, kontuan hartu behar dugu zelaia belar naturala dela, eta hori ez da oso arrunta. Batzuek ez dute hori aintzat hartzen, edo alde egiten dutenean baloratzen dute, baina oso garrantzitsua da.

Denbora luzea eman duzu entrenatzaile, 34 urte, alegia. Zerk erakarri zintuen?

Zaletasun itzela izan dut beti. Jokalaria nintzela entrenatzeko txartela atera nuen, eta garai hartan partidak eta partidak ikusten nituen. Beste jokalariek askok, aldiz, ez dute partidarik ikusten. Santu-

txun jokatzeari utzi nionean, talde gaztea entrenatzea eskaini zidaten, eta gero talde nagusia entrenatzeko aukera ere izan nuen. Gorpulean sartu nintzen, eta oso gustura ibili izan naiz. Ordu asko eta asko eman ditut futboleak, eta horrek denbora luzea kendu dio familiari. Baina beharrezkoa da entrenatzaile ona izateko: beste taldeak eta jokalariek ikusi, hortik ikasi...

Goiko mailetan entrenatzeko aukerarik sortu zitzaizun?

Ez, zurrumurruak egon ziren, baina besterik ez. Agian, komeniko zitzaidan taldeetan denbora txikiagoa eman izana, baina ziklo luzeak egin ditut eta ez naiz damutzen.

Krisiak gogor astindu du futbola, batez ere beheko mailetan. Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Egoera gero eta zailagoa da. Lehenengo Maila, eta hemen, Bizkaian, Athletic oso arrakastatsuak dira, baina beheko mailetan batzarkideek oso gogor egin behar dute lan. Eta horrenbeste lan egiteko gero eta gutxiago daude prest. Klub txikietan jokalariek gurasoek eta erakunde publikoek hartzen dute ardura, baina hori ez da oso egonkorra. Gainera, lehen gertatzen ez zen moduan, futbolaz gain beste zaletasun batzuk ere badaude gaur egun, eta guztietara bideratzen dira dirulaguntzak eta publizitatea. Etorkizunean egoera hobetzea oso zaila da, askoz jota mantendu egingo da, eta mantentze hori garaipentzat hartu behar da.

BAR BIDE-BI
Zamudio
Aukeratu zurea!

goizetako 5etatik
aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zenbaitzuz Berrak
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txanem etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

**EGUNEKO
MENUAK**

**ESPEZIALITATEA,
TORTILLAK**

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

**ESTILISTA
EVA ARDINES**

NEKA-HUTILEN
ELEAPAINDEGIA

Astearte - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Uribi Plaza, 1 - Behe 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19 (Aurreko txanda)

**HARATEGIA
ALBERTO**

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

**ama
taberna**

Leizaola plaza, 9 - Behe (Zamudio)
94 452 99 69



t: Itxaso Marina / a: IS

Elkartea Gaztetxearen baitan sortu da. Zeintzuk izan dira lehenengo urratsak?

Gazteei proiektu bat sortzea proposatu genien 2010. urtearen hasieran. Ideia batzuk aztertu ostean, guztion artean erabaki genuen proiektu solidarioaren bat aurrera eramatea. Hainbat gobernuz kanpoko elkarterekin jarri ginen harremanetan, eta Paz con dignidad elkarteak hartu zuen bere gain proiektua. Egitasmoaren helburuak, ekintzak eta abarrekoak zehaztu genituen, eta prestakuntza eman zigten aipatutako elkarteko kideek. Udalak ere eman digu laguntza.

Zenbat kide zarete?

Gaur egun 13 lagunek osatzen dugu elkartea. Gehienak, % 70 inguru, 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteak dira, eta gainontzekoak 18 urtetik gorakoak. Adin aniztasunak laguntzen digu ikuspuntu ezberdinak izaten, eta gauza asko ikasten ditugu elkarrengandik.

Zergatik El Salvador?

Paz con dignidad elkartearen lanak El Salvadorreko biztanleria osoarengan du

“Ilusio handiz gabilta aukera aprobetxatzen”

MARTA MARTIN | Sondikako Gaztetxeko koordinatzailea eta Irrifarrak sortuz, mugarik ez elkartearen kidea

Irrifarrak sortuz, mugarik ez Sondikako elkartea oso gaztea da. Gaztea, orain dela gutxi sortu delako eta bere kideak ere oso gazteak direlako. Elkarteak ahaleginak batuko ditu, El Salvador herriari laguntza agintzeko.

eragina. Hainbat proiektu dituzte bertan: baserritarrekin, umeekin... Gustatu zitzaigun euren lana, eta eurek gugan konfiantza izatea eta lanean hastera animatzea ere baziren erabakigarriak. Harreman zuzena dugu elkartearekin, hango errealitatea eta beharrianak ezagutzeko eta premiazkoak diren proiektuen berri izateko.

Zein da elkartearen lehentasuna?

Jendeak El Salvadorreko egoera eza-gutzea dugu helburu nagusitzat. Era berean, dirua edota beharrekoak batzen ahaleginduko gara, hango umei eta herritarrei agintzeko. Gure lanari esker lortutako diru-sarrera ondo erabiltzea nahi dugu. Horregatik zehaztu behar dugu Paz con

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippya, Deriora

Behoko Kalea 34
DERIO

MODA INFANTIL
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefona: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8.00etatik aurrera

Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel. 94 452 26 75

*“Halako esperientziek,
pertsonak garen
heinean, hobetzen
laguntzen gaituzte”*

dignidad elkartearekin, laguntza zelan aginduko den: dirua ala erositako tresneria. Aipatu bezala, elkarte horrek hainbat proiektu ditu El Salvador herrian eta bakoitza fase ezberdinean dago, edo bata bestea baino premiazkoagoa da. Ondorioz, laguntza agindu baino lehen zehaztuko dugu zein proiektutara eta nola bideratuko den. Herritarrei ere jakinaraziko diegu laguntza zertan inbertituko den, erakusketa baten bidez edo informazio-orrien bidez, esate baterako.

Hara bidaiatzeko asmorik?

Gure ahaleginari eta lanari esker zer lortu den zuzenean ikustea ikaragarria izango litzateke, baina zaila ikusten dugu hara joatea. Eta nahiko genuke, batez ere hango jendearekin harremana zuzena izateko eta, hartu-eman horri esker, esperientzia berriak bizi ahal izateko. Halako esperientziek bizipen positiboak dakartzigulako, pentsatzeko era aldarazten digutelako eta, pertsonak garen heinean, hobetzen laguntzen gaituztelako. Dena dela, nahiz eta hara ez joan, informazioa, argazkiak, bideoak... jasoko ditugu bertatik eta horrek ere poztu egiten gaitu. Gure helburua ez delako inoiz bidaiatzea izan, laguntzea baizik.

Zelako ekimenak egiten dituzue dirua batzeko?

Gure esku dagoen guztia. Informazioa zabaldu dugu herri osoan zehar, gure elkartearen zein El Salvador herriaren egoeraren gainean. Era berean, kamisetak eta poltsak jarri ditugu salgai, eta otzara bat zozketatu genuen Gabonetan. Tarte-

txo bat dugunean, herrian egiten diren ekintza guztietara hurbiltzen gara, gure lana ezagutzera ematera eta hainbat ekimen egitera: zozketak, umeentzako tailerak... Material guztia Gaztetxean dago salgai eta hura parte hartzen dugun ekintza guztietan ere eskura daiteke.

Pozgarria da gazteak halako proiektu solidarioetan murgilduta egotea.

Eta oso inportantea. Proiektuok baliagarriak direlako, gure errealitatetik kanpo

beste egoera batzuk daudela konturatze-ko. Etxean gaudela, lagunekin gertatuta-koak konponezinak iruditzen zaizkigu askotan, edo nahi ditugun gauzak behar-beharrezkoak direla. Esperientzia hauek laguntzen digute garrantzia benetan due-nari ematen. Halako egitasmoetan ema-ten diren harremanak, bizipenak... izuga-rriak dira, inork ez duelako ezer espero horren truke. Aukera paregabea eskaini zaigu eta hura ilusio handiz gabilta apro-betxatzen.



Kitchen sukaldeak

Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak

ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAIRUAK. SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK



TEL.: 94 656 85 89
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txorierriko etorbidea, 5
Artoaga eraikina
48160 Derio (Bizkaia)



Tamara
Kapatza-denda Oragarniak

Herriko plaza, 2
Dena
94 656 67 27

Doctor Luis Bilbao Libano, 6
Lenaia
94 463 06 32

tamaraeioa@yahoo.es

 **volconsa** DIVISIÓ
ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Zeure etxea intsonorizatu, doan
(Kostu osoa, AENaren eskutik)

tel. 94 644 00 19 ■ faxa. 94 406 49 13
aislamientobilbao@volconsa.es ■ www.volconsa.es
Solube, 1 - DERIO

TXUTXES ARRATE
IKER GIL AGUIRRE

URTERETEZE
POLTSIAK
DOZKLEAK
DOZKIAK
FRESKAGARRIAK

GOZOKIAK
OPIIAK
FRUTU/LEHORRAK
PATATA
FRUTUAK
OZPINETAKOAK

COMINOLAK

Elorria, 6 - bajo
48160 DERIO (Bizkaia)

Tel. 94 802 45 22

t/a: Sabin Arana

Nonahi aurki daitezke San Bartolome-meren izena duten ermitak, baina esan beharra dago Larrabetzukoak baduela kutsu berezi bat. Joan Infantea Bizkaiko jauna, geroago Gaztelako errege egingo zena, santu horren egunean jaio zen, eta Villanueva de Berresonaga izeneko hiribildua sortu zuen Larrabetzu deitutako lurraldean. Besteak beste, agindu hau ezarri zuen sortze-agirian: alkatea eta erregimentua (zinegotziak) San Bartolome egunean izendatu behar ziren urtero, bera egun horretan jaioa zelako. Diru kontuak ere egun horretan ematen ziren. Ohitura horrek XVII. mendera arte iraun zuen: handik aurrera, urte bukaeran ematen ziren kontuak. Alkateak izendatzeko eguna, berriaz, San Bartolome eguna izan zen XVIII. mendera arte.

Ezin daiteke esan, hala ere, San Bartolome ermita Joan Infantearen omenez altxatua denik, ermita hori Elizaldeko ama-elizaren mende zegoelako, ondoren aipatuko dugun gertaerak agerian uzten duenez. Gertaera horren berri 1585. urteko agiri batean ematen da. Haren arabera, Lur Lauaren ordezkariak hiribilduen

San Bartolome



eta hiriaren ordezkariak gabe batzartu ziren Bilbon bariku batean arrastiko 4etan. Pedro Gallartza Larrabetzuko biztanlea batzar horretan egon zen eta auzi kriminala aurkeztu zuen hiriko alkatearen

aurka, San Bartolome ermitan gertatutakoagatik. Azalpen argirik eman ez bazuten ere, badirudi Lur Lauko pertsona batzuk ermitan ezkutatu zirela iskanbila baten ondoren, eta hiriko alkatea, aginte



makila eskuan, hara joan ei zen haiek preso hartzera. Lur Laukoek auzitara eraman zuten, argudiatuak alkatea ezin zela ermitaren lurralde eremuan sartu aginte makilarekin. Batzar Orokorari eskatu zioten laguntza, hiriaren eta Lur Lauaren arteko norgehiagoka jakina zelako garai hartan.

Zin egiteko eliza

Gertaera horrek argi erakusten du Larrabetzun bazirela lege bi: bata Eilzalduen zuen indarra, eta besteak, hiribilduan. Bestalde, garai bateko leinu-etxeen eta hiribilduetako burgesiaren arteko gatazkaren adierazgarri ere bada. Hiribilduek, Bilbo buru zutela, partida XVII. mendean irabazi bazuten ere, eztabaidak luzaro jarraitu zuen.

Eraikinari dagokionez, leihoak gotiko berantiar estilokoak dira; eta eguerdi aldeko atea, berpizkunde estilokoa. Eraikina gutxienez fase bitan egin zen; edo, hobeto esanda, luzatu eta zabaltu egin zen. Atea dagoen horma zatiak mende balderantz luzatu zela ematen du, eta ermita iparralderantz ere zabaltu zen, gailurraren simetriarik ezak erakusten duenez. Apaingarririk nabarmenena eguerdi aldean dagoen gurutzea da. Badirudi garai batean ur bedeinkatuaren ontzia zuela beheko aldean. Oso esangura indartsua duen irudia da.

Ohikoa zen bezala, ermitak bazuen lur zati bat bere mantenurako, eta base-rrietxe bat ere bai; azken hori XVI. mendetik aurrera, beharbada. Elizaldeko maiordomoak eta batzarrak alokatu egiten zuten etxea, baina XIX. mendean saldu egin zituzten etxea eta beroni zegozkion lurrak, Independentzia Gerran hartutako zorrak ordaintzeko.

Zin egiteko eliza izan zen 1660an. Esate baterako, abadeak Juan Goikoola deitu zuen hara zin egitera, bere aita auzitara eraman zutenean.

*Ermitaren gertaerak
leinu-etxeen eta
hiribilduetako
burgesiaren arteko
gatazka islatzen du*



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larritze Heziketa eta Bigarren Heziketarako Ikastetxea

Unitzaga Itxia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEFIGO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA:
Batzilergoak: maiatzaren 26k 11ra
Zikloak: ekainaren 1etik 10era

Gure tailer eta laborategiak ezagutzera etorri
ATE IREKIEK JARDUNALDIA
Maiatzaren 30an eta ekainaren 2an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA
• Mekanizazioa *Erosi maila (2.000 euro)*
• Diseinua fabrikazio mekanikoan *Goi maila (2.000 euro)*
• Produktzioaren programazioa *Goi maila (2.000 euro)*

KIMIKA
• Ingurumen-kimika *Goi maila (1.400 euro)*

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
• Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak *Goi maila (2.000 euro)*
• Telekomunikazio eta informatika sistemak *Goi maila (2.000 euro)*

MERKATARITZA ETA MARKETINA
• Merkataritza eta marketin gestioa *Goi maila (1.400 euro)*

Zientzia eta teknologia batxilergoa



bertoko zamudio

ATT

Dultzaina Alboka Panderas Trikitixa

Euskal kantak Palak Txalaparta ...eta gehiago

Aurrematikula egiteko:
bertokozamudio@hotmail.com
615 74 95 68
615 74 95 70

Azken eguna
ekainaren 30a.

Amesten dute e-biztanleek liburu digitalekin?

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Newsweek aldizkariaren 2007. urteko ale baten portadan azaldutako titularra aspaldian aipatu zuen Loretahurrek bere blogean: *Books aren't dead (they're just going digital)*; hau da, liburuak ez daude hilda, digitalera pasatzen baino ez dabil-tza egiten. Edo halako zerbait. Esaldia Interneten libururik gehien saltzen duen guneko (Amazon) fundatzaileak bota zuen, munduan ezagun egin zen lehenengo e-book reader edo liburu elektroniko-koen irakurgailua aurkeztu zenean, *kindle*-a.

Urteak pasa dira, ordea, eta ohiko liburu- salmenta beherantz doan bitartean, horrelako irakurgailuak ez dira gure inguruan hainbeste ikusten. Baina zer da e-book reader bat?

Hura lehenengo helburutzat liburu digitalak irakurtzea duen aparatu digitala da. Horrelako aparatuek bost-zazpi hazbete (13-18cm) bitarteko pantaila dute normalean, eta, paper elektronikoa deri-

tzen teknologiari esker, gai dira liburu- en lettrak eta irudiak gris-eskalan azaltzeko, oso energia gutxi kontsumituz. Liburuetarako gehien erabiltzen diren formatuak pdf eta epub dira, eta horrelako aparatu baten milaka liburu gorde daitezke.

Horien antzekoak dira orain modan dauden *tablet*-ak. Paper elektronikoa- ren ordez, LCD edo AMOLED pantailak erabiltzen dituzte, energia gehiago kontsumitzen dute eta, batzuen ustez, okerragoak dira irakurtzeko. Baina koloreak azaltzeko gai izateaz gainera, ukimenezkoak izaten dira gehienetan. Era berean, *tablet*-etan milaka aplikazio daude eskuragarri: jokoak, bulegoko aplikazioak, posta elektronikoa, nabigatzailea... Liburuak eskuratzeko hainbat gune daude Interneten, eta eza- gunena Amazon da. Izan ere, Amazonek aurren, lehenengo aldiz, liburu digital gehiago saldu ditu arruntak baino.

Ez bihotzean, ez apaletan

Baina ez dut uste oraingoz liburu digita- lek tokia kenduko dietenik ohikoei. Alde batetik, editorialen estrategia oso egokia izan ez dela pentsatzen dudalako. Liburu digita- la, ekoizteko orduan koste

gutxiago duena, ohizkoa baino garestia- goa da batzuetan. Eta gehien erabiltzen den formatua, pdf-a, ez da epub forma- tua bezain egokia (azken hau prestatuta dago aparatu digitalera egokitzeko). Bes- tetik, nahiz eta liburuok edonora erama- teko modukoak izan, nahiz eta askotan hiztegiak integratuta eduki, nahiz eta hainbeste liburu eduki, nahiz eta libu- ruen gainean markak eta oharra- k jartze- ko aukera edota bilaketak egiteko aukera eman... ez dute betiko liburu- en xarma, ez dute bolumen fisiko eta animiko berdina, ez dute usain berdina... Eta, horregatik, erabili erabiltzen ditudan arren, ez dut uste behintzat nire bihotz eta apaletan beste liburu- en lekua hartuko dutenik.



Edonora eramateko modukoak izan arren, ez dute betiko liburu- en xarma

ERREKA
BIZKAIA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

Jesús Bihotza plaza, 5 - Euzkalduna er. 7., 1. planta
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 29 - Faxa: 94 452 30 74

Berbálaguna: 30 ardi ala 3.000?

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Luki!
–Hala ekarri Itsasne! Hauek dira berba-laguneko ikasleak?

–Bai! Miren, Lutxi, Alizia, Jose eta Inma dira.

–Eta nik zer egin behar dut zuekin Zipiriren kafetegian?

–Akeita hartu gurekin eta kontuak kontatu, ipuinak, istorioak.

–Baina nolako euskara erabili behar dut?

–Oinarrizko euskara Luki, *Basic English* modukoa; mila hitzetik pasatu gabe.

–Egingo dut ahalegina Itsasne. MOTXILAKO HIZTEGIAK, Adorez taldekoak ematen du oinarrizko 1.000 hitzen zerrenda.

–Zuk Luki euskara erraza erabili eta kito!

–Ba nire aita Boisen egon zen artzain. Eta 3.000 ardi eta mastin bi eduki zituen; fusil bat ere bai. Nik, berriz, 30 ardi ditut Txorierrin. Hala ere, ni artzaina naiz. Biok gara artzainak, bai nire aita, baita ni ere; nahiz-eta hark 3.000 ardi eduki eta nik 30.

Nik, Itsasne, oinarrizko euskararen egi-ten dizuet berba. Orain alegoria bat erabili-ko dut: zuek Berbalaguneko ikasleak 30 ardi daukazue eta pertsona euskaldun batek 3.000 ardi dauzka. Euskararako zer da hobea? 30 ardi hesi elektrikoaren

barruan ondo kontrolatuta, izenak ipinita, garbi-garbi, ala 3.000 ardi Iratiko basoan, erdi galduta, bee egiten, baina ikusi barik? Zer hobeto, 1.000 berbako euskara seguru ala 15.000ko segurtasun bakoa? 30 ardi dauzkana artzaina da, 1.000 hitzekoa euskalduna.

–Orduan Luki berba-lagunekoak ere euskaldunak gara?

–Jakina! Ingelesa maila onean erabil-
tzeko zazpi urtez ikasi behar da; esperan-
toa zazpi hilabetez; oinarrizko euskara
ikasteko zazpi astez –baina ikastaro trin-
koan–.

–Oso azkar pasatu zaigu kafe ordua!



Tlf: 944 478330
www.aisiahoteles.com



Tlf: 944 540574
www.pandpderio.com

GOLF GASTRONOMIKOA eskaintza berezia:
relax zikuitua, menu berezia eta green
fee bat, 9 zulotako golf-zelairako.

45€
pertsonako
beza baxe



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Zein elkarte
aurkeztu da
Derion?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:

Zamarripa eta Zarateren liburuak

Irabazlea:

Jon Andoni López



Arrain-bolak

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 400 g lebatz
- Xerra bat berdel
- 3 sardina
- Xerra bat izokin
- 2 arrautza
- Ogi xerra baten mamina
- Edalontzi erdi esne
- Perejil txikitua
- Urina
- Oliba orioa
- Gatza

Prestateko erea:

Ogi mamina esnetan bustiko dogu. Xukatu eta gerorako itxiko dogu. Arraina txikitu eta arrautzakaz, perejilgaz eta ogi maminagaz nahastuko dogu. Bolatxuak egingo doguz. Horreek urinetik pasau eta oliba oriotan prijiduko doguz.

Saltsea egiteko:

- Kinpula bat
- Bi koilarakada txiki berakatz-hautsa
- Tomate heldu bat
- Azenario bat
- Arrain-saldea
- 3 dl oliba orioa
- Gatza
- Piperbeltza

Saltsea:

Barazkiak txikitu eta prijiduko doguz. Koilarakada bat urin botako dogu; ostein, arrain-saldea. Bost minutuan eukiko dogu egosten. Saltsea puregailutik pasauko dogu eta arrain-bolei botako deutsegu.

Etxeko sukaldaritza

Gaztai eta irasagar-tartea

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak:

- 10 "sobao" txiki
- 150 g gurin
- 600 ml esnegain
- 250 g Philadelphia gaztai edo antzekoa
- Caserio 10 gaztaitxu edo antzekoak
- 2 koilarakada azukre
- 300 g irasagar

Prestateko erea:

Sobaoak birrinduko doguz eta gurina urtuko dogu. Osagai biak nahatu eta tartak egiteko molde baten zabalduko dogu ore. Esnegaina, mueta bietako gaztaiak eta azukerea nahatu eta ondo irabiauko doguz. Moldera bota eta ordu parte batean eukiko dogu hozkailuan, harik eta hotzitu arte.

Irasagarra ur apur bategaz bigunduko dogu su ezitan. Saltsa baten antzera dagoanean, tartarean gainetik bota, eta ondo zabalduko dogu. Hozkailura sartuko dogu barru. Tartea intxaurrakaz lagun daikegu.





Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Laztan goxoak eta beste kontakizun krisian / Batzuk
- Zamaontzia / Iñigo Aranbarri
- Braskint / Goizalde Landabaso
- Etxeko hautsa / Anjel Lertxundi
- Tangerko ametsak / Jon Arretxe

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Betti hartza / Andrea Gerlich
- Non zaude Ilargia? / Emile Jadoul
- Santurtziko mamuak / Aitor Arana
- Dottek oso gora heldu nahi du / Patricia Schroeder
- Heriotza zuriz jantzita / Miguel Anjel Mintegi

MUSIKA

- Mugitu / Haitzama
- Morphina / Zea mays
- ¡Bing bang! / Gasteiz big band
- Artzainak kantuz / Batzuk
- Itsas kantuak / Batzuk

Sudokua

	8		2				9	
				6				
2			8			4		
6						8		
3		1						5
		9		3			6	
		5						
			5		2	9	1	
1	3						5	8

8	5	7	4	9	6	3	2	1
4	6	8	5	7	2	9	1	3
7	9	5	3	1	8	6	2	4
8	2	9	4	3	5	1	6	7
3	7	1	9	8	6	2	4	5
6	5	4	7	2	1	8	3	9
2	1	3	8	5	9	4	7	6
9	4	7	1	6	3	5	8	2
5	8	6	2	4	7	3	9	1

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietza

Osasun-zentroa & Hortz-eskua
HORTZ-PLANTEAK - ORTU-GONTHIA ESTETIKOA
DENTURAREN ZEPHILDUNA

Dr. Arizola kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70



Erakusketak

Sondika

- > Aire zabaleko Pintura Lehiaketaren lanak. Uztailaren 8ra arte, erakusketa aretoan.

Zamudio

- > "Chernobilen seme-alabak", Jorge Lópezen eskutik. Uztailaren 14ra arte, Zamudiotorren.

Irteerak

Derio

- > Tokiko agenda 21: "Bilboko Hilerria" ibilbidea. Uztailaren 10ean, 11:00etan, gurutzeko kioskoan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Bestelakoak

Sondika

- > Nazioarteko folklorea: Martinique – Eivissa – Euskadi. Uztailaren 22an, 22:00etan, Goronda beko kiroldegian.

Loiu

- > Tenerifera bidaian izena ematea: uztailaren 17ra arte.

Ikuskizunak

Derio

- > *Thor* filma. Uztailaren 9an, 22:00etan, Lainomendi kalean.
- > *Esta abuela es mi padre* filma. Uztailaren 23an, 22:00etan, Besaide plazan.



Derio

- > *Huellas V* liburuaren aurkezpena. Uztailaren 6an, 19:30ean, Kultur Birikan. Literatura tailerraren eskutik.
- > "Busti zaitez", esklerosi anizkoitza duten gaixoen aldeko ekimena. Uztailaren 10ean, 10:00etan, kanpoko igerilekuan.

- > Tokiko agenda 21. Uztailaren 21ean, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > Plater-tiroko saioa. Uztailaren 30ean, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Txorierrri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.



Astikene Industrialgunea
Beresi, 23 - C Blokea
48160, DERIO - Bizkaia

Telefona:
94 454 06 52
688 68 53 39 (Raúl Negrete)

Faxa:
94 454 06 53

astikene@agrojardinstikene.com
www.agrojardinstikene.com



agrojardín

Astikene

Nekazaritza eta lorezaintzarako
tresneria saldu eta konpontzen dugu

Instalaziorik gabe
Erakustaldiak egiten ditugu
Zure etxera joaten gara







Peluquería Bego

estetika solarium

Uribe kalea, 6 behea % tel 94 454 27 97 % 48160 Derio



www.iscitto.com
iscitto@euskalnet.net

**USTIAPENA,
SALMENTAK, SAT**

MAKINA AUTOMATIKOAK:
**KAFEA, LATAK,
SNACK, TABAKOA**

Idorsolo ind., 5. nabia 10. pab - 48160 DERIO
Tel. 94 454 33 34
656 78 66 84 / 85 - Fax: 94 454 29 04

ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti @euskalnet.net





SAN ISIDRO

ENKONTOA OKELETA ESPEZIALIZATUA ETA ETNERO GIDOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

*Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala*

Telefona 94 454 07 88
Fax 94 454 14 12

Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO




10000

WI-FI

ZONA - 5000

ZIRIKADA JATETXEA

www.zirikadaderio.com
94 454 50 45
Gaztelumendi Plaza, 1
48160 Derio



GARBIKETA ZERBITZUAK

Gurbi-ikusiak, orokortzen
Auzokoen komunikatzen
Mantentzeko gurbi-ikusiak
Bulegnek eta lokalak
Olinia enbierako gurbiak
Bastoreak
Zahar bilaka

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93



eleizalde

kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel: 94 454 52 88



Leire Begoña

ILEAPAINDEGIA

Unibax ileapaindegia
Estetika
Ordulgi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

MURTENETXE, S.A.

Kontzesionarioa | Banatzailea | Zerbitzu Teknikoa

 **Grillo**



 **Grillo**



 **Grillo**



 **Grillo**



Kubota



Kubota



Kubota



Sogea Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18